

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

ITZULPENA ETA ZENTSURA 1975-1983 ALDIAN. EUSKARAZKO ITZULPENAK ETA ITZULPENA BITARTEKO GISA ZENTSURA PROZESUAN

1975etik 1983ra bitartean zentsura-prozesura aurkeztutako euskarazko itzulpenen dokumentazioa eta euskal liburugintzaren zentsura-prozesuan sortutako itzulpenak aztertzen dira kapitulu honetan: itzulpenen ikusgarritasunari, jatorrizkoei egiten zaien erreferentziei eta eskarien materialitateari ez ezik, lektoreek itzulpenez egindako oharrei eta zentsura fitxetan sortutako itzulpenen izaerari eta esku-hartze motei begiratzen zaie. Horretarako, AGAn gordetako zentsura-fitxak hustu ondotik itzulpenak identifikatu dira eta dokumentazioa aztertu, itzulpenaren ikusgarritasunari begiratzeko batetik eta itzulitako testuen tratamenduan bereizgarririk ba ote den identifikatzeko, bestetik. Halaber, ikusi da zentsoreek zer-nolako eragozpenak nabarmentzen dituzten txostenetan itzulitako pasarte bidez. Oro har, zentsoreek ez dute itzulpenen kontrako jarrerarik aztergai den garaian, eduki soziopolitikoek eragiten dizkiete erreparoa eta, hain zuzen ere, horien inguruko juzkuak justifikatzeko sortzen dituzte itzulpenak, edota euskarazko obrak gaztelaniazkoaren bidez identifikatzeko; nolana ere den, itzulpenak zehaztasun gutxiak dira, zentsoreen hizkuntza maila apalaren erakusgarri.

1. SARRERA

Itzulpenaren ikuspegitik aztertuko ditugu 1975etik 1983ra euskaraz argitaratutako eta zentsurara aurkeztutako liburuen fitxak kapitulu honetan, eta bi ildo nagusiri erreparatu nahi diegu: batetik, zer-nolako tratamendua izan zuten itzulpenek zentsura prozesuan eta, bestetik, nola baliatu zen itzulpena euskaraz argitaratutako lanak zentsuratik pasatzean. Horretarako, zentsura prozesura aurkeztutako eskarietako dokumentazioa izango dugu aztergai, baina baita irakurleek euren txostenetan egindako iruzkinak eta itzulpenak ere. Hala, itzulpenen ikusgarritasunari, jatorrizkoei egiten zaien erreferentziei eta eskarien materialitateari ez ezik, lektoreek itzulpenez egindako oharrei eta zentsura fitxetan sortzen diren itzulpenei ere begiratu diegu.

Ezin dugu ahaztu 1975 eta 1983 artean euskarazko argitalpenen artean itzulpenek zuten lekua. Torrealdairen (1984) datuetan oinarrituta Ibarluzeak (2018) dioenez, 1956-1975 urteen artean argitaratutako liburuen artean itzulpenak % 24,95 baziren, 1976-1983 artean % 29,33 ziren. Bada, Alcaláko Administrazio Orokorraren Artxiboan (AGA) gordetako materialaren argitan, zentsurara aurkeztutako euskarazko itzulpenen kopurua ere antzekoa da: Gandararen “Zentsura zenbakitan” kapituluko 20. grafikako

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

datuak kontuan hartuta, 1976-1983 bitartean zentsurara aurkeztutako lanen artean, itzulpenak, batez beste, % 33,5 dira.¹

Aurreko urte tartearen aldean gertatutako itzulpenen gorako joera horren oinarrian itzulitako testuen generoa dago, besteak beste. Izan ere, garai horretan, euskal kulturaren suspertze eta finkatze baten hasiera dago, eta baita euskarazko hezkuntzaren hedatzea ere. Ildo horretan, kontuan izan behar da, Gandararen “Zentsura zenbakitan” kapituluko 21. grafikan ikus dezakegunez, urte horietan, itzulpenen arteko gehiengo zabala Haur eta Gazte Literaturako (HGL) lanak dira. Beraz, aztergai izango dugun corpusean, haur eta gaztetxoei zuzendutako argitalpenak nagusituko dira, Espainiako Estatuko beste argitaletxe batzuen ipuin bildumetako liburuxkak, tirada handi samarretan euskarara ekarritako irakurgaiak.

Kapitulu honetan egiten den azterketak garaiko euskarazko kultura ekoizpenaren argazki bat emango digu; halaber, ekoizpen prozesuan, zentsura tarteko, itzulpenak zuen lekuaz hausnartzeko parada emango digu eta, oro har, hizkuntzek —euskarak eta gaztelaniak, nagusiki— zuten legitimitateaz eta indarraz (edo ahuleziaz) gogoeta egiteko bidea. Ikusiko dugunez, agerian geratuko da —zuzenean nahiz zeharka— irakurleek hizkuntzen gainean zuten ikuspegi ideologikoa (edo, zehazkiago esanda, euskararen aurrean maiz adierazten zuten mesfidantza). Aldi berean, ohartuko gara hizkuntzen arteko zubiak eraikitzen eta baliatzen zirela etengabe, ezinbestean, joan-etorriko bidean, zentsura prozesuak alde batera zein bestera aurrera egin ahal izan zezan eta eduki ideologiak nabarmentzeko.

2. ZENBAIT ZEHAZTAPEN ZENTSURA ETA ITZULPENAREN IKERKETAZ, GURE CORPUSAREN OSAKETAZ ETA AZTERLAN HONEN ATALEZ

2.1. Zeri eta nola erreparatu, eta zer dioten aurretik egindako lanek

“Zentsura, itzulpena eta ideologia: zenbait ikerlerro euskal ikasketen eremuan” lanean (Ibarluzea 2018: 695-730) ikerketa eskema bat proposatzen da, euskal ikasketetan zentsura eta itzulpena elkarrekin gurutzatzen diren esparruak aztertzeko. Zehatzago esateko, euskal eremuko Frankismoaren zentsura instituzionalari buruzko datuak antolatu eta sailkatzeko eredu bat proposatzen da. Eredu horren oinarrian Bourdieuren soziologia dago, ikertzaileari lehenagoko lanetan euskal itzulpenaren testuingurua azaltzeko eta kontzeptualizatzeko baliagarri izan zitzaizkion Bourdieuren eremuaren teoriaren tresnak (Ibarluzea, 2017). Beraz, Ibarluzeak proposatzen duen ikerketa eskema horretan eremuari, kapitalari eta *habitusari* dagozkion hiru ikerketa maila

¹ Torrealdairen datuekin erkatu ahal izateko, 1975ari dagozkion kopuruak alde batera utzita egin ditugu zenbaketak eta kalkuluak. Dena den, hemen aztertu den corpusean 1975eko lanak ere kontuan hartuko dira.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

aurrezten dira zentsura instituzionala eta itzulpena elkarrekin aztertzeko. Batetik, eremuaren egitura eta (ber)eraiketa osatzen duten eragileen, erakundeen, zirkuituen eta diskurtsoen azterketa legoke; bigarrenik, eremuaren eraginen eta kapitalen deskripzioa, katalogoei, kanonei, obren ezaugarriei... dagokiena; eta, azkenik, eremuaren baitako prozedurak leudeke, eta horren baitan itzulpenak zentsura prozesuan duen lekua eta itzulitako lanen zentsura prozesua.

Aipatutako hirugarren “Ikerketa-esparru honen baitan aztertzeak dira, nola itzultzaileen eta editoreen jokaerak eta estrategiak hala zentsoreenak; nolabait, zentsura prozesuan parte hartzen duten eragileen jokamoldeen argazkia egitea da ikerketa esparru honetako egiteko nagusia” (Ibarluzea 2018: 722). Hala, “Zentsura-fitxen eta testuen azterketatik erauzitako datuekin du zerikusia ikerketa-esparru honek batez ere” dio Ibarluzeak (2018: 709). Bada, kapitulu honetan, azken ikerketa esparru horretan jardungo dugu batez ere, jakinik azterketa horrek informazioa eman dezakeela baita ere kapitalen eta eremuaren beraren inguruan.

Zentsura aparatuen egiturari eta horrek eremuaren berreraiketan duen islari dagokionez, aurreko ikertzaileen esanak gogoratu behar dira, 1976-1983 zentsura aldirian, aurreko garaien aldean, zentsura aparatuan malgutasun- edo irekitze-aldi bat izan zela nabarmentzen baitute, eta itzulpenarekiko oztupoak ere gutxitu egin zirela (Torrealdai 2000; Lobejon 2013). Datu garrantzitsua da hori ulertu ahal izateko itzulpenak garaiko ekoizpenean duen garrantzia. Horiek horrela, eta egitura horrek kanonean izandako eraginei loturik, Torrealdai dio 1976-1983 urte tartean eman dezakeela zentsurak gutxiago eragin zuela euskal argitalpenean, baina argitaratutako lanen nolakotasunari loturik dagoela auzia. Izan ere, sasoi horretan batez ere itzulpen funtzionalak argitaratu ziren, aurreko aldirietako saio soziopolitikoak argitaratzeko joeraren aldean (2000: 215-236). Betiere Torrealdaien esanei jarraituta (Torrealdai 2000: 101-214), aurreko zentsura aldirian, 1956-1975 bitartean, zenbait itzulpen erlijioso onartzen hasiak ziren, baina, oro har, itzulpenik ez zuen nahi zentsurak. Torrealdaien hitzak ekarrita:

Aitortu behar dut ustekabeen harrapatu ninduela zentsurak itzulpenekiko erakusten zuen jarrera ezkorrak. 1962 arte behintzat gogoz kontra onartzen ditu itzulpenak. Jartzen dituzten erreparak behin eta berriz irakurri ahala jabetu nintzen arazoak. Frankismoak euskarari kultur statusa ukatu eta hutsaren pareko kategoria aitortzen baitio, nekez onar dezake itzulpenak hizkuntza minorizatuari erantzen dion balio positibo hori. Homologarritasuna. Bestearen parekoa izatea, alegia. Eta, gainera, itzulpenari esker kulturako hizkuntza bezala finkatu ahal izatea. Balio linguistikoa eta kulturala, biak ukatu dizkio berenez frankismoak euskarari. (1984: 126)

1975-1983 aldiriko zentsura fitxak aztertuta ikusi beharrekoa da ea bide bera jarraitzen den edo ez. Hala, dagokigun zentsura aldirian itzulpenek zentsura prozesuan gainerako lanen bide bera jarraitzen zutela ikusirik, zentsura fitxen azterketaren bidez ikusi nahi genuke, besteak beste, itzulpenek zer nolako tratamendua izan zuten zentsura prozesuan.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Nabarmentzekoa da, Ibarluzeak (2018) aurreratzen duen bezala, euskarazko produktuen azterketa baitezpada pasatzen zela itzulpenetik zentsura prozesuan: “dela testuak elebitan aurkeztu behar zirelako zentsura prozesura, dela testuen itzulpena aurkeztu behar zelako edo dela zentsoreak itzultzailearena egiten zuelako zentsura-prozesuan” (723). Izan ere, euskarazko irakurleak aztertutako euskarazko lanaren txostena egiten duelarik, laburpen itzulpen ariketa bat egin behar du nahitaez, euskaraz idatzitakoen berri gaztelaniaz eman ahal izateko. Bada, hori berori da, gainera, “euskal esparruan bizi izandako zentsuraren ezaugarri behinenetako bat (Espainiako beste hizkuntza batzuek zerabiltzatenen aldean)” (*idem*), nahitaez itzulpenetik pasatu beharra, alegia. Horiei ere erreparatuko diegu lan honetan 1976-1983 bitartean zentsurara aurkeztutako fitxen azterketa egiten dugularik. Izan ere, batetik, itzulitako obren fitxak izango ditugu hizpide, baina, bestetik, bestelako lanetan zentsoreek zein eskatzaileek baliatutako itzulpen estrategiei ere erreparatuko diegu. Ildo horretan, gure interesekoak dira, Ibarluzeak (2018: 723) proposatu bezala, zentsura prozesuan sortzen diren itzulpenak, itzulpen bidezko negoziazioak, zentsuraren alde edo kontra egiteko baliatutako itzulpen estrategiak eta horrek guztiak mezuak ideologikoki nola neutralizatzen edo indartzen zituen.

Lehenago ere egin izan du gaiari buruzko aipamenik Torrealdaik, zehazki, *Artaziak* (2000) lanean, 1964-68 urte tarteko zentsura-fitxen azterketak emandako “Zentsoreak itzultzaile” (146-149), “Dinamika dinamita bihurtu zuten” (149-150) eta “Itzulpenen antologia” (150-154) kapitulu ataletan, esaterako, edota 1969-1975 zentsura-aldiari dagokion “Hiru Gizon Bakarka” atalean, adibidez. Halaber, *De la hoguera al lapiz rojo liburuan* (2019) “Traduttore, traduttore” atala eskaintzen dio gaiari zentsoreen inguruko informazioa aletzen duelarik. Azken kapitulu horretan, honela dio (100.-101. or.):

A partir de los años 60, la gran mayoría de las traducciones llevan la firma de Antonio Albizu. Su calidad dista mucho de lo deseable. A lo más, son traducciones aproximativas, inexactas. Denotan que el conocimiento del euskera por parte del lector es, mas que escaso, escasísimo. Muchas veces deja de traducir palabras o expresiones que le resultan complicadas o desconocidas. Otras muchas, evidencia que no solo no llega a captar los matices sino ni siquiera a entender el texto. En definitiva, las traducciones de Albizu y de algunos más denotan un conocimiento primario del euskera. Y, sin embargo, su palabra es poco menos que la ley ante las instancias superiores.

Gainera, Torrealdaik dio zenbaitetan helburu gaiztoz baliatzen dela itzulpena, eta erabilera ideologikoaren adibide zenbait ematen ditu bai 2000ko bai 2019ko argitalpenetan. Bada, guk, lehenago aipatu bezala, 1975-1983 urte tarteaz izango dugu jomugan, ildo horretan egindako itzulpenak egongo direla aurreikusita.

2.2. Lan honen helburuak eta corpusaren osaketa (metodologia)

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Funtsean, beraz, bi helburu nagusi ditugu: zentsura prozesura aurkeztutako itzulpenen tratamendua zein izan zen aztertzea eta itzulpen prozesuan zentsoreek itzulpenik baliatu zuten aztertzea.

Helburu horiek bete ahal izateko, ezinbestean, lehen urratsa izan da 1975-1983 urteen artean zentsurara aurkeztutako euskal liburuen zerrenda hartuta argitzea zein diren euskarara itzultutako obrak eta zein jatorriz euskaraz idatzitakoak. Hala, zentsurara aurkeztutako lan guztien zerrenda hartuta hiru multzotan sailkatu dira zerrendako itemak: euskaraz sortuak, itzulpenak eta elebidunak (ikus Gandararen kapituluko 19. grafika: 544 espediente dira orotara, eta horietatik 202 dira itzulpen gisa identifikatutakoak (% 37), 41 elebidunak eta 301 euskaraz sortutakoak).

Elebidun gisa sailkatu ditugu euskaraz gain, bestelako hizkuntzaren bat (ia beti, gaztelania) duten argitalpenak. Multzo heterogeneoa da azken hori; batzuetan, pentsa liteke testu bat besteren itzulpena dela, baina beste batzuetan, ez. Hau da, kasu batzuetan, euskarazko edukien laburpena egiten da beste hizkuntza batean (gaztelaniaz, ia beti), edota edukiak bere osotasunean agertzen dira hizkuntza bietan. Beste kasu batzuetan, baina, atal bat ager daiteke hizkuntza batean eta beste bat bestean. Ez diogu erreparatu, orri kopuruaren arabera, hizkuntza bakoitzak duen lekuari, (des)proporzioari ere. Besterik gabe, "elebidun" gisa sailkatu ditugu argi eta garbi itzulpenak diren edo ez diren argitalpenen artean geratzen diren horiek guztiak. Gure azterketako lehenengo atalean, hau da, euskarara itzultutako lanen zentsura prozesuko dokumentazioari begiratu diogunean, ez ditugu kontuan hartu lan elebidun horiek.

Itzulpenak, jatorriz euskaraz idatzitako testuak eta testu elebidunak sailkatzeko lan hori ez da erraza izan kasu askotan, eta itzulpenaren eta itzultzailearen ikusgarritasunaz gogoeta egitera eramango gaitu. Izan ere, batzuetan, argitalpen baimenatarako eskarian edo zentsorearen txostenean aipamena egiten zaio itzultzaileari edota itzultutako obraren jatorrizko izenburuari, baina beste batzuetan, ez. Halakoetan, liburuen kredituetara jotzea izan da biderik zuzenena; zentsura fitxarekin batera ale bat gorde bada, ale hori izan da kontsultatu duguna, eta, bestela, liburutegietan egin dugu bilaketa eta kontsulta lana. Zalantzak argitzeko, tresna baliagarria izan zaigu EIZIE elkartearen webgunean eskuragarri dagoen Nor da nor datu-basea ere.

Kasu batzuetan, argitaratutako lanen jabego-orrietan bertan ere ez da ageri itzulpenaren aipamenik; hala ere, badakigu itzulpenak edo egokitzenak izan litezkeela, literatura unibertsaleko obrak edota ipuin tradizionalak direlako, esaterako (berridazketa zenbait, aldiz, ez ditugu itzulpentzat hartu). Baina, beste kasu batzuetan, obra ezezagunagoen kasuetan, konplexuagoa izan da itzulpen ote diren identifikatzea. Dena dela, nahitaez, hori izan da lehen urratsa, esan bezala, euskarara itzultutako obraren dokumentazioa aztertzea delako kapitulu honen helburu nagusietako bat, lehenago aipatu bezala.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

2.3. Lan honetako aztergaiez

lido horretan, lan honen 3. atalean, zentsura fitxetan itzulpenak duen ikusgarritasunari erreparatuko diogu. Zehazki itzultzaileen ikusgarritasunari begiratuko diogu 3.1. atalean, argitalpen eskaeretan eta zentsura fitxetan itzultzaileen izenak zenbatetan eta nola aipatzen diren ikusteko. 3.2. atalean, jatorrizko obrei (edota gaztelaniazko bertsoiei) egiten zaizkien aipamenak aztertuko ditugu, eta horrek bide emango digu gogoeta egiteko gaztelaniazko obren erreferentzialtasunaz eta, zentsura aparatuen logikan, euskarazko itzulpenek haiekiko duten menpekotasunaz. Aztertutako corpusean itzulpena ikusgarri egiten duen hirugarren alderdi bati ere erreparatuko diogu 3.3. atalean, argitalpen eskaera egitean aurkeztutako testuen materialitateari, hain zuzen ere. Ikusiko dugunez, eskaerarekin batera, guztiz amaitu gabeko maketak aurkezten eta gordetzen dira kasu askotan, eta, batzuetan, jatorrizko (gaztelaniazko) testuaren gainean itsatsita edo gratatuta ageri da euskarazko itzulpena. Beraz, material horren azterketak euskarazko itzulpenen argitalpen bidea ulertzen lagun liezaguke, zentsura tarteko.

4. ataletik aurrera zentsura fitxen irakurketan jarriko dugu arreta, zehazki, irakurleen txostenetan. Irakurleek euskarazko itzulpenei buruz egiten dituzten iruzkinak izango ditugu hizpide; jatorrizko (gaztelaniazko) testuarekiko fideltasunaren auzia nabarmenduko dugu, eta, berriz ere, euskarazko itzulpenen menpekotasunaz gogoeta egitera eramango gaitu horrek. Pluralean edota inbertsonalean ariko gara euskarazko irakurle-zentsoreez ariko garenean, ezinezkoa baita jakitea zehazki, salbuespenak salbuespen, zein zen zehazki zentsura-txostenen sinatzailea. Gandararen kapituluan ikusi daitekeenez (ikusitako XXX atala), itzulpenen zentsura fitxak hainbat irakurleen eskutatik pasatu ziren, eta irakurleek uneko plantillari zegokion zenbakiarekin sinatzen zuten (Torrealdai 2019: 78). Juan Mari Torrealdai aztertutako dokumentazioaren argitan, 2 dira bai 1974an, bai 1977an euskara ulertzen duten irakurle-zentsoreak administrazioan. Torrealdai azaltzen du, baina, 77an J.L. Albizu bajaran emana dela eta, hortaz, bakarra aritu zela lanean beste tarte batez (2019: 90-91). Albizutarrak dira euskarazko lanen irakurle zentsoreak: "Euskarazko liburu gehien-gehienak, Fragaren alditik hasi eta zentsuraren agintealdia bukatu arteino, Antonio Albizuk irakurri ditu Madrilan. Bere anaia Jose Luis ere inguratu du. Jose Luis ez zen plantillako zentsorea, kanpoko irakurlea baizik. Kontuan izan behar da liburu batzuk probintzietako delegazioetan irakurri ohi zirela, eta ez Madrilan" (Torrealdai 2000: 208).

Azkenik, 5. atalean, irakurleek eurek txostenetan txertatzen dituzten pasarte itzuliei (euskaratik gaztelaniara egiten dituzten itzulpenei) erreparatuko diegu, helburu bikoitzarekin; batetik, ikusiko dugu zer-nolako eragozpenak nabarmentzen dituzten itzulitako pasarte bidez. Bestetik, irakurleen itzulpen estrategiei erreparatuko diegu, gaztelaniazko pasarte horiek jatorrizko testuekin (euskarazkoekin) alderatuta.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

3. Itzulpenaren ikusgarritasuna zentsura prozesuan

1975 eta 1983 bitartean zentsura prozesura aurkeztutako lanei (544 espediente aztertu dira orotara) eta horien arteko itzulpenen kopuruei (202 itzulpen espediente) eta ezaugarriei dagokienez, lehenago ere esan dugu argitaratutako oso antzeko proportzioan aurkeztu zirela itzulpenak argitaratzeko baimen eskariak. Torrealdairen zentsura garaien urte tarteak kontuan hartuta, 1976 eta 1983 urte bitartean, % 29,33 dira itzulpenak argitaratutako liburuen artean, eta aztertutako eskarien artean % 33,5 dira itzulpenak urte bitarte horretan (% 37 dira, 1975ekoak ere kontuan hartuta). Aipagarria da, halaber, eskariak behera egiten duten antzeko neurrian egiten dutela behera itzulpenen eskariak ere, oro har. Tiradei dagokienez, tirada txiki, ertain zein handietan argitaratu ziren zentsura prozesura aurkeztutako itzulpenak (ikus Gandararen kapituluko "XX. Itzulpena" atala). Alde horretatik, askotariko itzulpenak dira zentsura prozesura aurkeztutakoak.

Zentsurara aurkeztutako itzulpenen generoari erreparatuta, gure datuek bat egiten dute Torrealdairen esanekin: itzulpenak errazago baimentzearen auzia itzulitako lanen generoarekin lotuta egon daiteke. Izan ere, arestian aipatu dugun bezala, 1975-1983 bitartean zentsurara aurkeztutako itzulpenen artean haur eta gaztetxoei zuzendutako liburuak dira ekoizpenaren gehiengoa, eta, Gandararen X. eta X. grafikei erreparatuta, ez dago, itzulpenen artean bederen, saio soziopolitikorik. Beraz, zentsura prozesura aurkeztutako itzulpen guztiak baimentzen dira ikusiko dugunez, irakurleek behin eta berriz nabarmentzen duten arren arreta bereziz aztertu behar direla haur eta gazteentzako lanak.

3.1. Itzultzaileen ikusgarritasuna eskarietan

Corpusean identifikatutako 202 lan itzulietatik 64ren kasuan ematen da itzultzailearen berri eskaria egiten deneko datuetan, eskariaren fitxa betetzen denean, alegia. Esan genezake, beraz, itzulitako lanen ia herena iristen dela itzultzailea "ikusgarri" izanda. Baina, jarraian dakartzagun datuen bidez ondoriozta daitekeenez, ez da inongo korrelaziorik edota sistematikotasunik ageri itzultzailearen izena aitortzeari dagokionez (ez generoari dagokionez, ez eskatzaileari dagokionez, ezta argitaletxeari dagokionez ere).

Esate baterako, Boga argitaletxearen izenean Enrique Otero Martinek 1975ean egindako 20 eskarien kasuan itzultzailearen izena ageri da eskarian: José Estornes Lasa da aurkezten diren lanen itzultzailea, eta halaxe ageri da eskari-fitxan. Baina, argitaletxe berak egindako eskarietako kasu batean, egilearen beraren izena ageri da itzultzailearen lekuan: Borne, Felix (AGA 69-75 esp., 73/04565) eta beste 7 kasutan "(Adap.)" markarekin ageri da Borne Muruaga, Felix egilearen izena, baina itzultzailearen daturik

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

gabe. Bogaren kasuan, hortaz, salbuespen bat kenduta itzultzailearen berri aitortzen da, edota lana egokitzapen bat dela agerrarazten.

Argos Vergara argitaletxeari dagokionez 13 kasutan aitortzen da itzultzailearen berri eskaria egiten deneko dokumentuan. Eskari horiek guztiak 1983koak dira, eta Josu Landa ageri da itzultzaile. Dena den, badira 3 eskari non itzultzailea bera izanik ere, aitortzen ageri ez den. Eskari guztiak Luis Izquierdo Calvin-en izenean eginak dira. Salbuespenak dira, nonbait, itzultzailearen berri ematen ez direnekoak.

La Galera argitaletxearen 10 eskaritan ageri da itzultzailearen izena, zehazki, Andrés Doria Dexeusek egindako 1975eko eskari batean eta 1976ko beste batean (Xabier Mendiguren da itzultzailea) eta Romà Dòria Forcadak 1980an eta 1981ean egindako 8 eskaritan (Xabier Mendiguren da itzultzailea sei kasutan, eta Joxeantonio Ormazabal bi kasutan). Roman Doriak egindako 4 eskari daude, non ez den ematen itzultzailearen berri, eta berdin Andrés Doriaren kasuan, badira-eta bere 13 eskari, itzultzailearen berri ematen ez dutenak. Argitaletxe honen kasuan, ostera, gehixeago dira itzultzailearen berri ematen ez duten eskariak.

SMren izenean Pablo Soler Vitoriak egindako 14 eskarien artetik, 8 eskaritan aitortzen da itzultzaileen izena eskarian bertan, eta 6 geratzen dira itzultzailearen berri eman gabe. SMren lanen itzultzaile dira Josu Legarreta Bilbao eta Rosa Maria Legarreta Marcaida 5 kasutan, Joakin Dorronsoro bi kasutan eta Kirkil kasuetako batean. Horra ere ez da, beraz, sistematikotasunik ageri eskaria egitean itzultzailea aitortzean.

Gutxi-asko, erdiz erdi egiten da itzultzailearen lanaren aitortzea eskaritan Cinsa argitaletxearen kasuan ere. Izan ere, Jabier Lopez de Guereñok aurkeztutako 5 eskarien artean ere, 2tan ageri da itzultzailearen (Xabier Mendiguren) izena eskari fitxan. 1975ean Spyriren *Heidi* (AGA 5331-75 esp., 73/04826) aurkeztean eta 1976an Salgariren "Morgan II (vasco)" (AGA 3732-76 esp., 73/05405) fitxan, zehazki. Ostera, Salgariren beste hiru bolumenen kasuetan (ikus *Sandokan* AGA 422-77 esp., 73/05893, *PIRATAREN EMAZTEA 1ª parte*, AGA 14347-77 esp., 73/06410 eta *MOMPRACEM AZKENA 2ª parte de Piratarem Emeztea**, AGA 14348-77 esp., 73/06410; denak ere 1977an aurkeztuak), ez da itzultzaileen berri ematen eskarian.

Altea argitaletxearen kasuan, bitan ematen da itzulpenaren berri eskaria egitean, zehazki, 1975ean Lourdes Anllo Ventok egindako eskari batean (AGA 7191-75 esp., 73/04906; itz.: Jose A. Aguirre) eta 1976an Carmen Aragonés eskatzaileak egindako batean (AGA 12256-76 esp., 73/05760; itz.: Mikel Achaga, J.A. Aguirre Alemán, Jesús María Arrieta, Xabier Kintana, Gorka Knörr, Imanor Laspiur, Xabier Mendiguren, Patxi Zabaleta, J. Ramón Azurmendi, "Itzulpenaren orrazketa euskaltzaindiaren izenean Dionisio Amundarainek egin"). Baina bi eskatzaileen kasuetan ageri dira bestelako erregistroak, itzultzailearen izenik gabeak (11 erregistro Lourdes Anllo Ventoren kasuan eta 7 erregistro Carmen Aragónése kasuan), denak ere denak 1975 eta 1976koak.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Salbuespen dira, Altea argitaletxeari dagokionez, itzultzaileen berri ematen direneko eskariak.

Itzultzaileen aipamen solteak egiten dira gainerakoetan, dela itzulpen bat argitaratzeko eskari bakarra egin izan dutelako eskatzaileek, dela eskaera bakar batean baino ez dutelako ematen itzultzaileen berri. Casals etxeak itzultitako obra bakarraren eskaria egiten du, 1975ean, eta itzultzaileen berri ematen du: "Gipuzkoako Ikastola Elkartearen ardurapean itzulia" (AGA 7439-75 esp., 73/04914). Kasu bera da Publicaciones de la Abadia de Monserrat-en kasua, urte berekoa: itzulpen eskari bakarra egiten da gure corpusean ageri denez, zehazki, *Kim Ibilkaria* lanerako, eta itzultzailearen berri ematen (itz.: Gorka Trintxerpe; AGA 3978-75 esp., 73/04765). Urtebete geroago aurkezten du Arco Iris etxeak corpusean ditugun itzulpenen artean bakarra: *Jesus, askatasunaren berri ona*, itzultzailearen izena, Zugasti-ar Anizeto, eskariko informazioan emanik (AGA 13674-76 esp., 73/05817). Plaza & Janes etxeak ere itzulpen bakarra aurkeztu du gure corpusean ageri diren eskarien artean, 1983an: *Nire lehenengo mila hitzak*, itzultzailearen izenaren berri emanik eskarian: Gotzon Nazabal (AGA 3025-83 esp., 73/08130). Mars Ivars etxeak, ostera, Asterixen abenturak argitaratzeko 6 eskarietako bakarrean aipatzen du itzultzailea eskarian (Iñaki Beobide, AGA 6544-76 esp., 73/05532). Nolanahi ere den, egilea Gosciny izanik, argi izan dezake irakurleak itzultitako lana dela (hurrengo ataletan ikusiko ditugu itzulpena ikusgarri egiten duten bestelako bide horiek). Mensajero argitaletxearen kasua ere antzekoa da, aurkeztutako 7 itzulpenetatik bakarrean zehazten du zein den lanaren itzultzailea eskari fitxan, zehazki, 1977an aurkeztutako Vernerren *Lurraren bihotzeraino* lanaren kasuan (itz. Iñaki Azkune; AGA 547-77 esp., 73/05898). Ostera, autore beraren beste lan batean ez da itzultzailearen berri ematen (AGA 11945-79 esp., 73/07103, adibidez).

Luis Madariagak J.J. Garmendia Arzellus-en izenean egindako bi eskarietan, Nemesio Etxaniz eta Jesus Gaztañaga itzultzaileen berri ematen da *Muntxausen'go Baroia* eta *Aladino* lanen eskarietarako (AGA 9484-75 esp., 73/05005). Luis de Madariagak Itxaropena argitaletxearen izenean aurkeztutako *Eusko Lurra Euskalerriko lutelestia* entziklopediako aleen eskarietan ez zuen itzultzaileen berri eman, ez eta Gordailu argitaletxearen izenean aurkeztutako *Nire lehen hitzak euskaraz* lanaren kasuan ere. *Euskalduinak - Euskal etnia 3* ere berak aurkeztu zuen, baina hor ere ez da ageri itzultzaileen berri eskarian. Eskatzaile berak batzuen eta besteen kasuan ezberdin jokatu zuela ikusten da, hortaz. Bada, J. J. Garmendia Arzelusek bere izenean egindako 4 eskariei dagokionez (5 ditu orotara), ez da itzultzailearen berri ematen "itzultzaile" epigrafearekin, baina itzulpena bera nahiko agerikoa dela esango genuke, izan ere, Shakespearearen izena dago lanen izenburuan, eta egile gisa Benito Larrakoetxea ageri da; gainera, izena ageri den kasu horietako batean "versión" dakar eskarian (AGA 794-75 esp., 73/04595). Beraz, itzultzaileen berri eman gabe ere, eskariaren datuek ematen dute daturik itzulpena (edota egokitzapena) ikusgai egiten dutenik.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO
DIRECCION GENERAL DE INFORMACION
DELEGACION PROVINCIAL DE VIZCAYA

N.º
13 ENE. 1977
547

13-1-77
(Signature)

DEPOSITO PREVIO DE LIBROS

D. El Mensajero Corazon de Jesús domiciliado en BILBAO
Calle Avda. Universidades, n.º 13 como editor interesa la formalización del Depósito Previo, entregando SEIS ejemplares de la obra siguiente:

Título LURRAREN BIHOTZERAINO
Autor Julio Verne *traducido*
Editor Mensajero Carácter literatura
N.º de páginas 164 Edición 1ª Ejemplares 2.000
Bilbao, 28 de Diciembre de 19 76

Saraleguit 802


1130
(Signature)

13 ENE. 1977


Ilmo. Sr.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua


MINISTERIO DE INFORMACION Y TURISMO
DIRECCION GENERAL DE CULTURA POPULAR
Régimen Editorial

DEPOSITO
CONSULTA VOLUNTARIA


ARCHIVO

EXPEDIENTE N.º 547 -77

FECHA DE PRESENTACION: 13.1.77 VENCIMIENTO LEGAL:

TITULO DE LA OBRA: LURRAREN BIHOTZERAINO


AUTOR: VERNE ~~NAKI~~ AZKINE, Julio

EDITORIAL: Mensajero


NUMERO DE PAGINAS: 164


TIRADA OFICIALMENTE DECLARADA: 2.000

ANTECEDENTES:

EDICION: 

IMPORTACION:

PASE AL LECTOR: 

MADRID, 13 DE DE 1977
EL JEFE DE LECTORADO, 

Mod. 485 -1

1. *Lurraren bihotzeraino* argitalpena depositean uzteko eskaera orriaren eta zentsura fitxaren azalaren irudiak. Egilea markatzeko atalean agertzen dira egilea bera eta itzultzailea. Eskarian, boligrafoz gehitzen da itzultzailea ikusarazten duen oharra (Iturria: AGA 547-77 esp.).

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Oro har, argitalpen eskaria betetzean, egilearen, argitaratzailearen, editorearen, itzultzailearen... izena (ere) ematen da (edo ez) autoreari dagokion atalean. Itzultzailea ikusgarri egiten da kasuen ia herenean, baina beste batzuetan ez (sistematikotasunik ez dugu topatu argitaratzailearen, eskatzailearen edota lanen generoari erreparatuta). Hala ere, eta jarraian ikusiko dugunez, itzultzaileei eskarian egiten zaizkien erreferentziek ez ezik, bestelako datuek ere egiten dute itzulpena ikusgai: jatorrizkoari egiten zaion erreferentziak, adibidez. Bada, bestelako bide horiei erreparatuko diegu hurrengo lerroetan.

3.2. Erreferentziak itzultitako lanen jatorrizkoari edota gaztelaniazko bertsioari

Gehien-gehienetan, jatorrizko lanari (gaztelaniazkoari, ia beti) egiten zaion erreferentziak adierazten du itzultitako lana dela zentsura prozesura aurkeztutakoa. Batez ere, jatorrizkoaren izenburua da aipatzen dena, zentsura prozesuan itzulpenek dituzten bestelako agerbideak ere aztertuko ditugun arren.

Kasu batzuetan, eskaera egiterakoan, itzulpenaren izenburuaren ondoan gehitzen da jatorrizkoaren izenburua (ikusi, adibidez, AGA 7077-75 esp., 73/04902: "UR TTANTTA BAT NAIZ. SOY UNA GOTA"). Beste batzuetan, aurkezten den lanaren izenburuaren ondoan itzulpena dela adierazten da (AGA 8242-75 esp., 73/04944; "Obra: BIZIA LUREAN Gran Tavesía nº 2. traducción al vasco"), edota hizkuntzari egiten zaio erreferentzia (AGA 3732-76 esp., 73/05405; "Obra: MORGAN II (Vasco)"). Kasu horietan guztietan, beraz, lanaren izenburuarekin batera agerrarazten da lana ez dela jatorrizkoa. Aldiz, Castresanaren "Gernikako beste arbola" lanaren kasuan, fitxaren ANTECEDENTES atalean ematen da gaztelaniazko jatorrizkoaren eta bere espedientearen berri: "ANTECEDENTES: EDICION 122232/77 (El otro árbol de Guernica)" (AGA 13818-78 esp., 73/06835).

Interesgarria da ohartzea, inoiz edo behin, euskarazko izenburuaren ordez, gaztelaniazkoa ageri dela AGAko datuetan: esate baterako, "Pulgartxiki" "Pulgarcito" gisa ageri da (AGA 11967-75 esp., 73/05141). Baina, gehienetan, eskatzailearen aldean, irakurlea bera da fitxan jatorrizkoaren (edo gaztelaniazko bertsioaren) izenburua adierazten duena eta, beraz, itzulpena ikusgai egiten duena, lanari buruzko datuetan inolako aipamenik egin ez bada.

Esate baterako, hauxe diote 22 eta 23 irakurleek, Maves argitaletxeak ateratako Txokolatzeko etxearen eta Xagueme pertxentaren istorioak dakartzan liburuari buruzko txostenean (AGA 7601-75 esp., 73/04921):

Forman el volumen dos adaptaciones de los cuentos clásicos "Hansel y Gretel" y "La ratita presumida", ambos en vascuence.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Dado que el primero de ellos suele ofrecer, en otras versiones que se presentan en castellano, inconveniencias varias, se aconseja en especial que sea leído por el lector de vascuence.

Madrid, 8 de Julio de 1975

Se trata, efectivamente, de las adaptaciones susodichas, simplificadas y sin inconveniencias de orden moral ni pedagógico.

NO DENUNCIABLE

23. Madrid, 9 de julio de 1975
(Sinatua)

Bistakoa da, Grimm anaien eta Perraulten ipuin ezagunak izanik, itzulpenak edo egokitzenak direla aurkeztutako lanak. Gehienetan, gaztelaniazko egokitzenen itzulpenak izaten dira. Adibiderako ekarritako espedientean, lehen irakurleak ematen du horren berri, gaztelaniazko bertsioei erreferentzia eginaz (oso bakanetan egiten da obraren jatorrizko bertsioaren erreferentzia, gehientsuenetan, gaztelaniazko bertsioak aipatzen dira). Gaztelaniazko bertsio batzuek izan dituzten “desegokitasunak” kontuan izanda, euskarazko irakurlearen txostena eskatzen du lehendabiziko irakurleak. Ikusten denez, beraz, gaztelaniazko bertsioak dira erreferentziazkoak euskarazko itzulpena erkatzeko eta balioztatzeko orduan.

Antzekoa da *Mari Errauskin – Alibaba eta berrogei lapurrak* (AGA 7604-75 esp., 73/04921) liburuaren txostena ere, eta itzulpen/egokitzenen ikusgarritasuna agerikoa da; baina, kasu honetan, beste askotan bezala, haur eta gaztetxoei zuzendutako argitalpena izateak duen garrantzia eta arriskua nabarmentzen da:

Versión en vascuence de los cuentos “La cenicienta” y “Alí-Baba y los cuarenta ladrones”. Sería conveniente que fueran leídos por el lector de vascuence (sobre todo por las inconveniencias no se olvide que va dirigido a niños de corta edad- que pudiera encerrar el segundo de ellos).

Madrid, 8 de Julio de 1975

Versiones de cuentos adaptadas a los niños sin que contengan nada impropio o perjudicial a la educación de los niños.

NO DENUNCIABLE

23. Madrid, 9 de julio de 1975
(Sinatua)

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

4. atalean sakonkiago ikusiko dugun bezala, itzultako lanen txostenetan behin eta berriz agertzen diren ideiak dira horiek; batetik, irakurle gaztetxoei zuzendutako lanak izatearen garrantzia (ikus *Fernández, Urzelai eta Villagranen kapitulua*) eta, bestetik, argitalpen onargarria izatekotan, gaztelaniazko bertsioarekiko izan beharko lukeen fidelotasuna: “De ser la versión en vascuence fiel a los textos en castellano, no hay inconveniente temático para autorizar. (Infantil)” (AGA 75-75 esp., 73/04565); “Se informa como autorizable, siempre y cuando los textos en vascuence sean fiel reflejo de la versión en castellano que se adjunta (Infantil).” (AGA 74-75 esp., 73/04565); edota, Pinotxoren kasuan, “Adaptación muy resumida y en vascuence del cuento Collodi. Es autorizable, siempre que se compruebe que los textos en dicho idioma son fieles a la versión en castellano (es infantil)” (AGA 71-75 esp., 73/04565).

Beraz, lehenbiziko irakurleak gaztelaniazko bertsioa identifikatu eta ontzat eman ostean, euskarazko itzulpena gaztelaniazkoarekin bat datorrela ziurtatzen du euskarazko irakurleak, eta hori da nolabait itzulpena onargarri egiten duena. Oso gutxitan esaten da, haur eta gaztetxoei zuzendutako itzulpen lanen kasuan, ez dagoela euskarazko irakurlearen beharrik (nahiz eta, 1983 aldera, badiren zuzenean onartzen diren lanak). *Iturritxo maitagarriaren* kasuan (AGA 8127-75 esp., 73/04940), esaterako, gaztelaniazko bertsioa identifikatu eta zuzenean onargarria izan litekeela esaten du lehen irakurleak; hala ere, euskarazko irakurleak baieztatu egiten du irudipen hori:

A través de las ilustraciones, se descubre qu se trata del cuento que en castellano suele presentarse bajo el título “Las dos hermanas”.

Dado que su argumento resulta inocuo para niños, se estima que podía autorizarse sin necesidad de que sea leído por el lector de vascuence. (Es Infantil).

--

Se trata efectivamente de la versión vasca de las “dos hermanas” o “el amor de la fuente”.

23 Madrid, 29.7. 1975

(sinadura)*

Haur eta gaztetxoentzako lanen kasuan ez bezala, helduei zuzendutako literatur lan itzulien kasu batzuetan ez da erkatzeko eskaririk egiten (ikus *Larrakoetxearen W. Shakespeare’ren antzerki guztiak* lanaren espedientea, AGA 794-75esp., 73/04595). Hipotesi gisa, esan genezake hartzaileen perfilak ez ezik, lanen luzerak ere eragin lezakeela horretan; sistematikoki itzultako lan guztiak euskarazko irakurlearengana bideratzean.

Haur eta gaztetxoei zuzendutako lanei egozten zaien izaera hezitzaile eta moralizatzaileari lotuta, ikus dezakegu itzultako lanen bat, baimendu ez ezik,

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

gomendatu ere egiten dela kasuren batean. Bereziki interesgarria eta esanguratsua da Anaya argitaletxeak ateratako KOSMOS 1'GOA ARIKETA-LIBURUAREN txostena (AGA 4103-75 esp., 73/04774), eta ohar bedi irakurlea, adibide honetan ere, gaztelaniazko bertsioa dela erreferentziazkoa:

Esta obra didáctica a ha sido autorizada (con varias reediciones) en su versión en castellano. Al presentarse ahora en vascuence, convendría, no obstante, fuera revisada por el lector correspondiente.

Madrid, 16 de abril de 1975

Se trata de un libro de ejercicios prácticos en vascuence. Merece una (R), recomendable a que las páginas 99-104 hacen integrar positivamente al País Vasco dentro de España. Véase el mapa, la foto de Franco y de la bandera nacional. "Yo soy español; mi patria es España". "La bandera (es la nacional) simboliza a España" "Hay que honrarla" "El que desprecia la bandera, desprecia a su Patria" "Me siento orgulloso de ser español".

17 de abril de 1975

(Sinatua)

Aurrekoa bezalako txostenak irakurrita, argi ikus dezakegu, Elizalde (2018) eta Ibarluzeak (2018) dioten bezala, ezabatu bakarrik ez, zentsurak sortu ere egiten duela, kanona sortzen duela, eta lanak zentsuratzen baditu ere argitalpen jakin batzuk (kasu honetan, itzulpen jakin batzuk) sustatzen dituela. Argi ikus dezakegu, halaber, zentsura aparatuen ikuspegi ideologikoa hizkuntzaren, hezkuntzaren eta, oro har, kulturaren gainean.

Ildo horretan, nabarmentzekoak eta gogoratzekoak iruditzen zaizkigu zentsura prozesuan euskarazko irakurleak egiten dituen ohar metalinguistikoak, hizkuntzen gaineko ikuspegiaren adierazgarri diren aldetik.

Esate baterako, interesgarria da, itzulpena ez den arren, Kintanaren "Euskaldun berriekin euskaraz" (AGA 1485-76 esp., 73/05309) liburuari buruzko txostenean, bigarren irakurleak egiten duen oharra, funtsean, euskarazko eta euskararen aldeko testu orok sorrarazten duen susmoa jartzen baitu agerian: "El fin principal de la obra consiste en despertar el amor al vascuence y estímulo a su estudio. Esto se realiza de manera prudente, sin enfrentamiento con el castellano. No ofrece problemas. Madrid 10 de febrero de 1976".

Beste kasuren batean, erabilitako euskara da irakurleak kritikatzeko duena, hizkuntzaren ikuspegitik, ikuspegi ideologiko batetik baino gehiago. Jarraian dakargun adibidea ere itzulpen batena ez den arren, argigarri zaigu hizkuntzaren gaineko ikuspegi agerian

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldiari. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

jartzeko. Hauxe dio irakurleak, esaterako, Iralaren *Bat bitan banatzen da. Mao Tse-Tung en azkon zorrotza*” (AGA 4066-76 esp., 73/05424) lana dela eta:

SOCIO-POLÍTICO. Tras un prólogo en que expone las dificultades que el autor ha tenido que vencer para una exposición en vasco, va explicando las doctrinas de Mao sobre la Democracia, el Socialismo, la Revolución, su actitud antireformista, etc. Está realizado de manera objetiva y aséptica sin que el autor tome partido por las ideas. Por lo que estimo no ofrece dificultades y menos aún, si se tiene en cuenta que el vasco utilizado es un esperanto vasco para cuya lectura hay que tener agallas. (X bat behean)

Hizkuntza-ideologia ageri-agerikoa da, halaber, Mujikaren hiztegia argitaratzeko eskarian (AGA 190-78 esp., 73/06435). Hau dio informeak:

Más que diccionario se trata de un vocabulario del vasco al español, que se caracteriza, como el prólogo indica claramente, por el afán de “vasconizar” o “euskerizar” las palabras de las que el vasco popular carece para poder hacer de ese idioma, inicialmente rural y primitivo, instrumento más útil para el uso intelectual y literario, y adecuarlo al uso de los tecnicismo modernos.

Hizkuntzaren ideologiarekin lotutako ideiak dira horiek guztiak, eta itzulpenari dagozkionak aletzen ahaleginduko gara, aurrerago, 4. atalean. Baina, aurreratu dezakegu, oro har, irakurleak ez daudela itzulpenarekiko atezuan, hizkuntzaren eta liburuen edukien egokitasunarekiko atezuan baino. Horri ekin aurretik, baina, itzulpenak ikusgarri egiten dituen azken alderdi bati erreparatuko diogu, itzulpenak argitaratzeko eskarien materialtasunari, hain zuzen ere.

3.3. Eskarien materialtasunak itzulpena ikusgai egiteaz

Aurreko atalean ikusi dugunez, zenbaitetan itzultzailea aipatzen da argitalpenen eskaera fitxetan. Ikusi dugu, halaber, askotan, gaztelaniazko bertsioari egiten zaiola erreferentzia. Horiek egiten dute itzulpena ikusgarri. Bada, beste askotan, beharrezkoa da liburura bertara edota aurkeztutako bertsioetara jotzea itzulpena den ala ez argitzeko, itzulpena ikusezina delako, eskaeran eta zentsura fitxan. Kasu horietan, aurkezten den lana espedientearekin batera gordetzen bada, liburuaren kredituei esker jakin dezakegu nor den itzultzailea. Esate baterako, Altea argitaletxeak ateratako *Txori bat naiz* liburuaren eskaeran (AGA 7191-75 esp., 73/04906) eta fitxan ez da itzulpenaren inguruko aipamenik egiten, baina, horiekin batera, kartulinazko karpeta batean fotokopiatuta daude liburuako orrialdeak izango direnak; eta hor, liburuaren kredituetan zehazten da, besteak beste, itzultzailea Jose A. Aguirre dela.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Kasuistika zabala da espedientei atxikitzen zaizkien itzulpen lanei dagokienez; askotarikoa da hemen ere itzulpenak uzten duen arrastoa. Normalean, itzulpena aurkezten da soilik. Beste batzuetan, ordea, jatorrizkoari loturik aurkezten da itzulpena. Aurkezten den lanaren materialtasunari erreparatuko diogu, beraz, itzulpena ikusgai egin dezakeen neurrian; baina baita itzulpenen argitalpen prozesua (zentsura tarteko) irudikatzen eta ulertzen lagun diezagukeelako ere.


Bereziki interesgarriak dira, zentzu horretan, itzulpenarekin batera jatorrizko (gaztelaniazko) testua aurkezten deneko kasuak. Esate baterako, Boga argitaletxeak haurrentzako argitaratutako ipuin bildumaren kasuan, gaztelaniazko liburuxka aurkezten da eskaerarekin batera, eta euskarazko itzulpena mekanografiatuta eta grapaz erantsita dago. Egia da, kasu horietan, bistakoa dela itzulpenak direla, haur eta gazte literaturako klasikoak direlako; hamar bat orriko liburuxkak, tirada handi samarrekoak (10.000 ale): *Txano gorritxu* (AGA5586-75 esp., 73/04836), *Errauskiñe* (AGA 5581-75 esp., 73/04836), *Amed errege-semea* (AGA 5582-75 esp., 73/04836) *Otsoa eta zazpi antxumeak* (AGA 5583-75 esp., 73/04836), *Txokolatzeko etxetxo* (AGA 5585-75 esp.,73/04836), *Katu oskiduna* (AGA 5587-75 esp., 73/04836), *Panpoxa lotia* (AGA 5588-75 esp.,73/04836), *Pulgartxiki* (AGA 5589-75 esp., 73/04836), *Edurne Zuri* (AGA 5590-75 esp., 73/04836) edota *Aladino ta krisaillu zoragarria* (AGA 5584-75esp., 73/04836), besteak beste.

3.1 atalean azaldu bezala, espediente horietako batzuetan itzultzailea aipatzen da, eta beste batzuetan, ez. Baina, kasu guztietan, gaztelaniazko bertsioei egiten die erreferentzia lehen irakurleak txostenean, gorago aipatu bezala; “Edición en vascuence del conocido cuento [...]. De ser fiel a la versión en castellano que se acompaña, es autorizable (Infantil)” (AGA 76-75 esp., 73/04565) eta gisako aipamenak egiten dira. Beraz, gaztelaniazko liburuari grapatuta dagoen euskarazko itzulpena konprobatzen eta onartzen du bigarren irakurleak.

La Galera argitaletxeak ateratako *Eguzki ibiltaria* (AGA 3279-76 esp., 73/05388) lanaren kasuan, gaztelaniazko edizioaren gainean *collage* moduan itsatsita agertzen da euskarazko testua (hori bai, zentsura fitxan ikusgai dago itzultzailea —Xabier Mendiguren—, egilearen ondoan). Antzerako agerpena du euskarazko itzulpenak Anaya argitaletxearen *Natur zientziak. Ikasketa personalerako lanerako fitxak 6* eta *Natur zientziak. Irakaslearen gidaliburua 7 E.G.B.* liburuaren (AGA 275-76 esp., 73/05256) kasuan ere: fotokopiatutako orriak dira, eta itzulpena gainean itsatsita dago.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua



2. *Eguzki ibiltaria* lanean, euskaratutako testua *collage* moduan aurkezten da, gaztelaniazko testuaren gainean itsatsita. Izenburuaren itzulpena, berriz, eskuz zirrimarratu da (Iturria: AGA 3279-76 esp.).

SM argitaletxearen *Ameskeriak* lanaren kasuan (AGA 366-82 esp., 73/7759), berriz, testua euskarara itzulita egon arren, irudietako hitzak gaztelaniaz ageri dira. Hala, 18. orrialdean “El león” jartzen du, kaiola batean dagoen lehoiaren aurrean. Beste adibide bat aurki dezakegu 12. orrian; protagonistak kalean daude eta horma batean “Gran concurso del tiro del arco” kartela azaltzen da eta horretaz mintzo dira, hain zuzen ere, protagonistak. Azkenik, 32. orrialdean “Marionetas” jartzen du.

Pentsatzekoa da, kasu horietan guztietan, amaitu gabeko maketa dela zentsurara aurkezten dena. Baina, horretaz gain, euskarazko itzulpena gaztelaniazko testuari gratatuta edota gainean itsatsita agertzeak itzulpena bera ikusarazteaz gainera, gaztelania(zkoa)rekiko lotura (fisikoa, literala) edo menpekotasuna nabarmenduko luke berriz ere, aurreko puntuan aipatu bezala.

4. Irakurle zentsoreen oharrak itzulpenei buruz

Itzulpena identifikatetik, ikusgarri(ago) egitetik edo ezkutatzetik haratago, bestelako erreferentziak ere egiten zaizkio itzulpenari aztertutako corpusean. Zehazki, itzulpenari buruzko iruzkinen bat agertzen da lan itzulien 202 txostenen artetik 23tan. Hortaz, ondoriozta daiteke itzulpenaren deskripzioa edota balioespina (oso azalekoa bada ere) fitxen % 10 ingurutan baino ez duela egiten testua euskaraz aztertzen duen irakurleak.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Horiek aztertuta, esan dezakegu euskarazko liburu itzulien txostenak idazten dituzten irakurleek ezer gutxi sakontzen dutela itzulpenaren nolakotasunean, informeeetan ez baita ageri, ez itzulpenari buruzko deskripzio zehatzik, ez eta balorazio landurik ere. Irakurleek arreta edukiaren egokitasunean ipintzen dutela ondoriozta daiteke itzulitako lanen txostenen azterketatik (liburu honetako beste kapitulu batzuetan ere adierazten denez), arreta berezirik jarri gabe hizkuntza batetik besterako aldaketa prozesuari berari. Euskarazko testuaren eta irakurleek ezagutzen duten bertsioaren artean eduki alderik dagoen jakin nahi izaten dute lektoreek (hala galdetzen dio, ikusi dugunez, euskaraz ez dakien irakurleak euskaradunari), eta hala ez denean, hots, edukia bertsua denean, itzulpena fideltzat jotzen da.

Zehazki, honako ohar hauek egiten ditu irakurle euskaradunak itzulpenaz Maves argitaletxearen 1975eko HGLko ipuin klasikoan bildumako (“Txokolatego etxea”, “Errauskiñe”, “Alibaba”, “Aladin”, “Katu botaduna”...) liburuxken espedienteetan: “se trata, efectivamente, de las adaptaciones susodichas, simplificadas y sin inconveniencias de orden moral ni pedagógico” (AGA 7601-75 esp., 73/04920), “versiones de cuentos adaptadas a los niños” (AGA 7604-75 esp., 73/04921), “se traducen y abrevian en vascuence. No tienen transcendencia moral ni pedagógica” (AGA 7600-75 esp., 73/04920), “versiones y adaptaciones de cuentos sin improcedencias morales ni pedagógicas para la formación de los niños” (AGA 7599-75 esp., 73/04920); “versión sencilla y abreviada de Pulgarcito, etc. Sin nada que resulte ofensivo ni contrario a la educación infantil” (AGA 7602-75 esp., 73/04921). Egokitzapen eta bertsioak direla esateaz gainera, edukien egokitasunari begiratzen diete, pedagogikoki eta moralaren aldetik egokiak ote diren (zentsura-prozesua ezartzen zuen legeak markatutakoaren ildotik; ikusi 1956ko otsailaren 2ko BOEn ezarritakoen inguruan Fernández, Urzelai eta Villagranek esaten dituztenak).

Egokitzapenen luzera da itzulpenaz egiten den balorazio bakarra 1977an Cinsa argitaletxeak *Salgariren Pirataren emaztea* eta *Mompracem azkenaren* bertsioak argitaratzeko egiten diren eskarien txostenetan: “al parecer muy comprimido” irizten dio, kasu honetan, lehenbiziko irakurleak. Euskarazko irakurleak aldeko irizpena ematen die, inolako oharrik egin gabe (AGA 14348-77 esp., 73/06410).

Fideltasuna aipatzen da, ostera, 1975ean Ediciones Bogak aurkeztutako HGLko ipuin klasikoan itzulpenen irakurleen txostenetan: “es una versión fiel a la adjunta castellana” (AGA 11965-75 esp., 73/05141) eta “Se trata de una versión fiel a la castellana adjunta. Y desde el punto de vista religioso, es una como en otra lengua, no puede censurarse, pues la petición al cielo es de tener descendencia” (AGA 11969-75 esp., 73/05141) irizten diote irakurleek. Bide beretik egiten zaizkio oharrik urte berean, bai Ramon Sopena argitaletxearen “Asto narru” ipuinari (“La versión es efectivamente fiel y abreviada”, AGA 8127-75 esp., 73/04940), bai Anaya argitaletxearen *Kosmos 2* eskolarako ariketa liburuari (“Es version literal del autorizado en castellano y no contiene nada censurable”, AGA 4104-75 esp., 73/04774).

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Haurrentzako lanekin gertatu bezala gertatzen da *Eusko Lurra* entziklopediako bolumenak argitaratzeko bi eskariren kasuan, txostenean itzulpena aipatzen denetan: “traducción fiel del número 11 de la misma enciclopedia en castellano” (AGA 12621-75 esp., 73/05174) eta “version fiel” (AGA 9482-75 esp., 73/05529) esaten zaie. Ildo berean jotzen du irakurle euskaradunak testu erlijiosoetarako (adibidez *Eliz-guraso apostolikuak*, AGA 5677-75 esp., 73/04806) zein literatur lan luzeagoetarako: “El texto, en lengua vasca, es idéntico al castellano que se ofrece en el exp./5915/77” (AGA 5916-77 esp., 73/06111) irakur daiteke *Moby Dick*en egokitzapen baten txostenean 1977an, edota “lo escrito en vasco corresponde cib ek texto en castellano” Alberto Schommerren “El grito de un pueblo (Herri baten Deihadarra)” gisa jasotako lana argitaratzeko Ediciones Vascas-ek 1978an egiten duen eskariari dagokion txostenean.

Beste adibide esanguratsu bat aipatzearren, *Kixotearen* itzulpena “versión fiel de la novela cervantina Don Quijote de la Mancha” (AGA 1862-77 esp., 73/05948) dela irizten dio lektoreak. Bistan denez, eta kontuan hartuta dokumentazioaren arabera 647 orrialdekoa dela euskarazko testua, eta bi eguneko epean egiten duela ebazpena euskarazko irakurleak (1977ko otsailaren 9koa da eskariaren sarrera-data, eta otsailaren 11koa irakurlearen irizpena), pentsatzekoa da lagin laburrekin jotzeko zuela.

Apurtxo bat haratago doa irakurlea “Morgan II vasco” izenez jasota dagoen 1976ko txostenean. Bere iritzia gehitzen du, eta itzulpen prozesuan egindako egokitzapenari buruzko oharra egiten. La Galerak egiten du eskaria, eta Emilio Salgariren testuaren itzulpena Mendigurenena da. Honela dio txostenak: “Relato de aventuras de los filibusteros y corsarios por los mares del Caribe. Novela, a mi parecer, muy simplificada respecto al original de Salari, aunque no he verificado la simplificación. No creo que encierre nada perjudicial para la formación de los niños” (AGA 3732-76 esp., 73/05405). Ikusten denez, sinplifikazioa egiazatu ez izateak ez du prozesua oztopatzen, eta edukiak kaltegarriak ez izatea da testuak aurrera egiteko gako nagusia. Izan ere, irakurleak balorazio hori egin eta hurrengo egunean bertan, 1976ko apirilaren 4an, baimendu baitzen argitalpena. Cinsa argitaletxeak autore beraren *Sandokan* argitaratzeko baimena eskatu zuen 1977ko abenduaren 13ko sarrera datarekin. Bada, urtarrilaren 17an eskatzen da euskarazko irakurlearen iritzia eta urtarrilaren 19an “versión fiel” irizten dio azken horrek (AGA 422-77 esp., 73/05893). Honakoan ere, lehenago Kixotearenean aipatu gauza bera esan dezakegu, 141 orrialde osorik erkatzeko modurik ez zuela izango irakurleak bi egunetako lanorduetan eta, erkatzekotan, laginak erkatuko zituela.

Urte berean, Orixeren *Euskaldunak*² lanaz ere iritzia ematen du irakurleak, balioetsi egiten du euskaratik gaztelaniara egindako itzulpena, labur-labur bada ere: “lleva aneja la traduc que es fiel y esmerada” dio, zehazki (AGA 3139-76 esp., 73/05383).

² Lan honen zentsura-prozesuari buruzko xehetasun gehiagorako, ikusi Ayerbe eta Sarasolaren kapitulua.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Lehen ikusi dugunez egokitzapenetako sinplifikazioak hizpide badira zenbait itzulpenetan, testuari gehitutakoetan ipintzen da kasu bakanetan arreta. *Kristau bidea* lanean, esaterako, testuak izandako aldaketak ikusarazten ditu euskarazko irakurleak 1975eko urrian: “Obra de tecnología catequística. Se trata de la versión al vasco del famoso CATECISMO HOLANDES, con unos complementos doctrinales y la incrustación de un lexicon o pequeño diccionario de términos” (AGA 10878-75 esp., 73/05081). Hitzaurrean jartzen du arreta irakurleak, 1978ko ekainaren 8an, *Erromako eleizearen araudia* lanaren txostena egitean. Zenbait lerro eskaintzen dizkie gai hauei: hitzaurrean gorazarre egiten zaiola Larrakoetxeari, nor den Larrakoetxea, lanaren autorearen arrazoiak bizkaierazko idazmoldeaz... Ordea, itzulpenari buruzko irizpena bera esaldi bakarrean egiten du: “El resto del libro contiene el articulado Reglamento” (AGA 6526-78 esp., 73/06629).

Salbuespenak izanagatik, aipagarria da kasu hori, bai eta Graficas Bilbaok 1978an egindako eskariaren harira sortutako txostena ere. Santi Onaindia karmeldarra ageri da *Azkatasunaren yarraren* egile, eta irakurleak letra larriz idazten du txostenean lanaren izenburua: “SEGUID A LA LIBERTAD” (AGA 7095-78 esp., 73/06643). Besteak beste, itzulitako lanaren ibilbideari egiten dio aipamena honako honetan irakurleak (luzatu egiten baita txosten honetan, gainerako lanetan ez bezala). Azaltzen du Frantzian argitaratu zela lana lehenago, ondoren Espainiako argitaletxe batek eskatu zuela publikatzeko baimena, baina ukatu egin zela. Oraingoan, ordea, baimendu egiten da, komenigarritzat jotzeko moduko liburua ez den arren, izan ere, dagoeneko zirkulazioan dago lehenago eginiko bertsio hura. Hemen ere, obraren testuinguruak dakar lanaren ibilbideaz, merkatuko zirkulazioaz, aritzea, baina itzulpen prozesua bera ez da hizpide.

Salbuespen hori kenduta, 1978an oso bakanetan egiten da itzulpenari buruzko aipurik eta, 1979tik aurrera, behin baino ez da ageri aipamenik, zehazki, zentsura prozesuan sortutako itzulpenari egiten zaio erreferentzia Ereinen *Txalo pin txalo* euskarazko lanaren txostenean: “Los textos en castellano y vasco se corresponden” dio irakurle euskaradunak eskariarekin batera bidaliko dokumentazioa aztertuta. Beraz, aipatu ditugun aipamen guzti horiek 1978 bitartean egiten dira batik bat, eta ordutik aurrera ez da ia itzulpenari buruzko deskripziorik edo baloraziorik egiten.

5. Irakurle Irakurle ak, itzultzaile

Azken atal honetan, irakurleak berak darabiltzan itzulpen estrategiei erreparatuko diegu, itzulpenak ez diren liburuaren fitxak ere aintzat hartuta. Aurretik ere aipatu dugun bezala, kontuan izan behar da itzulpena beti dagoela presente, nolabait, euskarazko argitalpenen zentsura prozesuan. Izan ere, euskarazko irakurleak liburuaren itzulpen, sintesi edo parafraasi moduko bat egiten du ia beti, obraren berri (batez ere, edukien berri) modu orokorrean emateko. Beste batzuetan, ordea, hitzez-hitzezko itzulpenak ere egiten ditu; eta horiexei erreparatuko diegu, hain zuzen ere, atal honetan. Helburua

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

bikoitza izango da: batetik, itzultzen diren pasarteak nolakoak diren aztertzea, eta, bestetik, irakurleen itzulpen estrategiei erreparatzea, batez ere esku-hartze ideologikorik egiten denez ikusteko, zentsura fitxetan euskaratik gaztelaniara itzulita txertatzen diren pasarte luzeagoen kasuan.

Kontuan izan behar da kasu asko eta askotan liburuaren izenburua besterik ez dela itzultzen zentsore(ar)en diskurtsoan. Uste izatekoa da inoiz obraren eskarian bertan ageri diren datuei helduta “kopiatzen” dela izenburua, eta inoiz obra identifikatu eta gaztelaniazko ordaina ematen duela administrazioko irakurleak (euskaraz ez dakien lektoreak bestelako datuetan oinarrituta ematen du ordaina, paratestuetan eta eskariko datuetan oinarrituta, eta euskaraz dakien lektoreak nolabaiteko berritzulpena egiten du, kontuan hartzen badugu euskarazkoa bera itzulpena dela eta irakurleak euskarazkotik itzultzen duela baina jatorrizkoa aurrean izan gabe).³

Beste kasu batzuetan, ostera, ez dago zalantzarik, euskaraz dakien lektoreak bakarrik itzuli dezake. Horixe da, esaterako, Eusko Unibertsitatea bilduman argitaratzeko Lizundiak egindako 1978ko eskariko *Gramatika bideetan* lanaren kasua (AGA 9593-78 esp., 73/06720):

Se trata de un libro con pié de imprenta completo y 380 páginas, escrito en vasco, cuyo título traducido es “POR LOS CAMINOS DE LA GRAMATICA” y se trata de un trabajo nuevo sobre la gramática vasca, transformando los pasos que hasta el momento han dado los lingüistas.

Esan bezala, izenburuen itzulpena ia sistematikoa izaten da, eta ez du aparteko informaziorik ematen irakurlearen interpretazioaz. Helburua obraren identifikazioa litzateke, eta, 1.2 atalean azaldu dugun bezala, gaztelaniarekiko menpekotasuna eta gaztelaniazko kultur ekoizpenen erreferentzialtasuna adieraziko luke. Horren adibide da, esaterako, Vernerren itzulpenaren txostena: “Es la versión vasca de la obra del autor titulado en castellano ‘Viaje al centro de la tierra’” dio zehazki. (AGA 547-77 esp., 73/05898).

Beste batzuetan, bestelako atalen izenak itzultzen dira. *GIZARTEA 7 Historia* argitalpenaren kasuan, esaterako, gaitegia itzultzen du irakurleak bere txostenean, agian, hezkuntzaren esparrura bideratutako testuliburua izanik, edukien berri emateko modurik zehatzena izan daitekeelako:

PARTE ARGUMENTAL

³ Izan ere, eta lehenago azaldu dugun moduan, batzuetan, zentsura fitxaren goialdean, obraren izenburua zehaztean ematen da gaztelaniazko ordaina, adibidez: “OBRA: UR TTANTTA BAT NAIZ. SOY UNA GOTA” (AGA 7077-75 esp., 73/04902). Baina, beste askotan, *Mari Errauskin– Alibaba eta berrogei lapurrak* liburuaren kasuan, esaterako, irakurleak ematen du izenburuen itzulpena, bere txostenean: “Versión en vascuence de los cuentos ‘La cenicienta’ y ‘Alí-Baba y los cuarenta ladrones’” (AGA 7604-75 esp., 73/04921).

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Se trata de n libro escrito en vasco titulado “Historia 7”, con pié de imprenta completo y 139 páginas y es una Historia de América y Europa, con fotografías complementarias, realizado para profesores y alumnos.

PARTE VALORATIVA

Esta Historia está dividida en 6 partes:

1ª.- Introducción. Particularidades y significados.

2ª.- Descubrimientode América

3ª.- Población, Economía y Comercio en los siglos XVI y XVII

4ª.- Cultura, Pensamiento, Ciencia, Religión y Arte en los siglos XVI y XVII.

5ª.- Acontecimientos políticos de Europa en los siglos XVI y XVII.

6ª.- Política, Industria y Cultura en Europa y España en el siglo XVIII.

Todo el texto se reduce a desarrollar los anteriores apartados.

No hay nada que objetar.

PARTE DICTAMINADORA

No impugnabile.

Madrid, 1 de diciembre de 1978.

Euskarazko obra baten pasarteren bat itzultzen duenean, irakurleak alderdi jakin bat nabarmendu nahi du; bere juzgua frogatzeko bitarteko gisa darabil hautatutako pasartearen itzulpena. Gehienetan, auzi politikoak izaten dira, lurraldetasunarekin, independentziarekin edota erregimen frankistarekin zerikusia dutenak.

Esate baterako, Jokin Apalategiren *Askatasunaren ibilaldia* (AGA 9136-78 esp., 73/06706) liburu hirueledunaren txostenean, gatazkatsuak iruditzen zaizkion termino batzuk nabarmentzen ditu lektoreak, eta horietakoren bat euskaratik gaztelaniara itzultzen: “A la Policia llama despectivamente ‘txakurra’ (perro)*. A la muerte de algunos terrorista de ETA, llama ‘asesinato’ (páginas 106-136 y fotografía de la página 157).” Gainerakoan, edukiei lotuta, independentziari edota torturei egiten zaizkien aipamenak nabarmentzen ditu, besteak beste.

Bakaikoaren *Euskadiko dependentzia ekonomikoa* (AGA 12470-77 esp., 73/06348) liburuaren kasuan, edukien sintesia egiteaz gain, pasarte batzuen laburpena atxikitzen du irakurleak, obra “inpugnabilea” dela adierazteko, izan ere irakurlearen hitzetan: “Los dos objetivos del libro se condensan en la última frase del libro. Socialismo e

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

independencia. Hay, además, una apelación a las armas. Ver pág. 138/9: los trabajadores europeos pueden ayudarnos con armas, etc” (idem).

Beste adibide bat aipatzearren, Mikel Zarateren *Bizipenen bultzaldaz* (AGA 6968-78 esp., 73/06640) poema liburuaren kasuan ere, inpugnaziorik ez dagoen arren, itzulpena eta parafraasi darabiltza irakurleak bere interpretazioa egitean, Francoren aurkako mezuak, aldarri abertzaleak, nabarmentzeko. Obraren eta bere atalen izenburuak itzultzen ditu (nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, itzulpenok ez diren beti guztiz zuzenak izaten), baita bertsoen bat ere.

Zarateren “1975, azaroak 20” poemari erreferentzia egitean (ikusi olerkia 1. eranskinean), berriz, bere hitzetan azaltzen du irakurleak Francoren heriotzari egiten zaion aipamena. Baina ez du testu literarioaren polifonia aintzat hartzen; ez du azaltzen pasarte hori, “bertso-paper zaharren poz berria”, komatxo artean txertatzen dela poemaren barruan, ahots ezberdinak bereiz daitezkeela. Irakurketa nahiko azalekoa da, beraz, eta, badirudi, besterik gabe, arazotsuak iruditzen zaizkion edukiak nabarmendu nahi dituela, itzulpenaren eta parafraasiaren bidez:

PARTE ARGUMENTAL:

Se trata de un librito escrito en vasco titulado “BAJO EL EMPUJE DE LA VIDA”, con pie de imprenta completo y 69 páginas que contiene una serie de poemas divididos en cinco partes, “Comienzo”, “Pesares de la vida”, “Placeres de la vida”, “sueños de la vida” y “terminación”, patrocinado por la Caja de Ahorros Vizcaina.

PARTE VALORATIVA:

Encierra una serie de poemas de ambiente vasco.

En la página 35 bajo el título “PINTADAS” y escrito en prosa, que termina con la frase !!!Viva el país vasco libre!!!, se alude a los que en el silencio de la noche pintan ese letrero en los pueblos y ciudades dando a entender el deseo que tiene el pueblo vasco.

En la página 48 bajo el título “20 DE NOVIEMBRE DE 1975” se alude a la muerte de Franco y dice que si Dios lo hace santo, lo ponga en el cielo muy arriba para que no pueda de nuevo bajar al mundo.

PARTE DICTAMINADORA:

No se encuentran indicios racionales en qué basar una impugnación.

Madrid, 20 de junio de 1978.

Beste batzuetan, irakurleak itzulpenaren bidez nabarmentzen dituen pasarteek erlijio eta moralaren inguruko auziekin dute zerikusia. Luis Haranburu Altunaren *Zeraren kasuan* (AGA 1488-76 esp., 73/5309), esaterako, abortuaren eta antisorgailuen gaiei heltzea da euskarazko irakurleak obra salagarritzat jotzearen kausa. Interesgarria da

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

ohartzea, kasu honetan, gaztelaniazko irakurlea dela, euskarazkoarekin hitz egin ostean, obra onargarritzat jotzen duena:

Esta obra contiene tres novelas cortas, precedidas de un prólogo sobre la importancia de la literatura para un país y sobre el desarrollo de la literatura vasca estos últimos años. Entre las novelas hay una -MARIAN- que es el diario de una chica en cinta que consulta con su amigo y un amigo del amigo, planteándose así el problema del aborto y el de los anticonceptivos como precauciones necesarias hoy en día. La protagonista hace suya la idea de los anticonceptivos para evitar situaciones como la suya, pero declara que la sociedad no le había dado esa enseñanza previa. No hace, en cambio, suya la idea del aborto, pero cuenta el encuentro con los m'edicos (sic): unos dispuestos a hacerlo por dinero, otros enemigos de hacerlo por por miedo a la conciencia o por miedo a la ley. El caso es que la chica acaba un día por pasar a Francia. En la pag. 70 dice la chica no estar conforme con el aborto. En las p. 75-76 se enumeran las soluciones posibles: la solución quinta es dejar nacer al niño. En la p. 77 se dice: "Martín lleva razón sobre las precauciones pero no incurrir en la situación", pero se añade: "La culpa no es sólo nuestra". En la p. 80-81 se habla de que en Nueva York está permitido el aborto y de que en Francia se va a proceder a su aprobación. Teniendo en cuenta todo esto, creo que la obra es denunciabile, máximo cuando en la p. 79 se dice que "en nuestra lucha hay que dar lugar a estas cosas. Nuestra lucha nos hará libres".

DENUNCIABLE

23. Madrid, 7 de febrero de 1976

OBSERVACIONES: Cambiadas impresiones con el Lector de vascuence, parecer ser que el motivo de su propuesta de denuncia radica, fundamentalmente, en la divulgación de anticonceptivos y opiniones, más o menos discutibles, sobre el aborto. Deducimos que la base legal para una denuncia es mínima, por lo que parece aconsejable permitir la difusión del libro, sin impugnación judicial alguna.

(sinadura)

9-2-76

Ildo berekoak dira pasarte luzeagoen itzulpenak topatu dituguneko adibideak. Irakurleak gatazkatsutzat jotzen dituen pasarte luzeagoen itzulpena egiten duenean, poema sorta edo testu zati oso batean itzulpen literala eransten zaio dokumentazioari, alegia, ez dugu lehenago aipatu bezalako edukien parafrasi bat bakarrik topatzen. Erkatu egin ditugu dokumentazioan ageri diren pasarte itzuliak eta argitaratutako testuetako pasarteak, batez ere aztertu nahirik estrategia zehatzik erabiltzen ote den eduki ideologikoak nabarmentzeko. Izan ere, aurreko kasuetan ikusitako ildotik, eduki politiko-identitarioek sortzen dute susmoa. Beraz, espedientei eranskin gisa atxikitako itzulpenei erreparatuko diegu, jarraian. Denak ere, 1975 eta 1978ko urria bitartekoak dira, hau da, aztergai dugun epe tartearen hasiera aldekoak. Ikusiko dugunez, itzultzen diren pasarte arazotsuak (politikari eta ideologiari lotutakoak), helduentzako obren espedienteetan ageri dira, poesia eta saiakera lanen espedienteetan, hain zuzen ere. 2. eranskinean jaso ditugu adibide batzuk, argitaratutako liburuetan topatu ditugun euskarazko testuak parez pare jarrita.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

1975eko urriaren 21ean iristen da Madrileko delegaziora Gorka Trintxerpe autore eta Francisco Zabaleta editore moduan identifikatzen dituen eskaria (AGA 11147-75 esp., 73/05098),⁴ *Gorriak* argitaratzeko (*Ezten gorriak* izenburuarekin argitaratu zen). Espedienteak 1975eko urriaren 24ko itxiera data du. Artean, 23 zenbakiarekin sinatzen du lektoreak urriaren 22an obrari buruzko txostena, eta honela dio “Informe y otras observaciones” atalean, itzulpena egiteaz batera testuaren interpretazioan sakonduaz (ikusi, halaber, Ayerbe eta Sarasolaren kapitulua):

Obra poética de crítica social

El título “Gorriak” es de traducción ambigua: “Los Rojos” o “Cosas crudas”. El contenido de la obra, siendo un conjunto de poemas o poesías, inclina más bien a pensar “Cosas crudas”. Dentro, en efecto, de páginas intrascendentes desde el punto de vista socio-político, encontramos una poesía (p. 38-39) sobre Dios Exista o no exista, el mundo sigue su propia marcha. En la p.42 habla de las plus-valía como nuestro enemigo. En las páginas 46-48 se habla de la dura situación del agricultor y del obrero. Y en el prólogo (p.7-8), escrito en prosa habla de la cara avergonzada del socialismo y de que se comprenden las enormes dificultades que implica cuando el hombre y la masa humana cuesta tanto desprenderse de cosas menos importantes y más baladies. Añade que ha de resistirse a la tentación de cambiar el amor al hombre por el odio y las pasiones desatadas, manteniéndose en la esperanza. Bendice a los que trabajan por el “pueblo”, pero entretanto “vivamos, perseveremos y reciban los herederos el fruto de nuestro trabajo”.

En conjunto creemos que la obra, en sus máginas “rojas” o “crudas” es un espolear a las mejoras y cambios sociales, sin determinación alguna sobre el modo y forma de dichos cambios.

NO DENUNCIABLE

23

Madrid, 22 de octubre de 1975

Espedientearekin batera gordetzen diren dokumentuen artean, Antonio Albizuk egun berean sinatutako makinizkribu bat ageri da, eta bertan adierazten du:

Para mayor aclaración he traducido en folio aparte lo más importante. Creo, con todo, que desde el punto de vista jurídico, en razón de esa posible o probable interpretación, no habría claridad suficiente para el enjuiciamiento, en general.

Itzulitako pasarteak jasotzen dituen folio horretan ageri da “Astelehena” poema. 2. eranskinean (2.1. adibidea) azpimarratu ditugun hizkuntza akatsak akats eta baliokidetza linguistikoak emateko zailtasunak zailtasun, interesgarri da Albizuk olerkiaren itzulpenaren azpian egiten duen oharrari erreparatzea: “Considero que en sí es aceptable. Con ocasión del catalán hubo una polémica pública en prensa, pero ese tono y esa contraposición con el castellano no parece oportuno en la actualidad”.

Ezten gorria obraren espedientearen bezala, koloreen sinbolismoa eta polisemia esanguratsuak dira Iñaki Olabeagaren *Maite dedana* (1975) poema liburuaren

⁴ “Gorka Trintxerpe” ezizena erabili izan du Patxi Zabaleta egileak bere hainbat lan emateko.


Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

espedientean ere (AGA 2848-76 esp., 73/0537). Espediente horrekin batera, 2. lektoreak itzultitako hainbat pasarte atxikitzen ditu. Markak, azpimarrak eta eskuz idatzitako oharra daude itzulpenean. Batez ere, “libertad” azpimarratzen da, behin eta berriz, baina baita “llegará nuestro día”, “muchos bichos (...) policías”, “mentiras”, “justicia” edota “atados con cadenas”, “siempre pisoteados” ere. “Sabino Arana”, berriz, eskuz idazten du, Aranari buruzko poemaren itzulpenaren ondoan. Gatazka politikoarekin, abertzaletasunarekin eta askatasun aldarriekin zerikusia duten pasarteak itzultzen eta azpimarratzen ditu, beraz, lektoreak.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua



3. Kolore bitan egindako markak, azpimarrak eta eskuz idatzitako oharrak Maite dedana poema liburuaren espedienteari atxikita lektoreak aurkezten duen itzulpenean (Iturria: AGA 2848-76 esp.).

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Interesgarria da ikurrinaren koloreei lotuta, jatorrizko poema batetik lektorearen itzulpenera dagoen aldaketa (ikusi 2. eranskina, 2.2. adibidea). Bitan aipatzen dira ikurrinaren koloreak: “Gure Erri, / orlegi, / ta zuri, / ta gorri!” eta “Lore orlegi, zuri, gorri, / azkatasuna”. Bada, itzulpenean, berdea desagertu eta gorria eta zuria bakarrik aipatzen ditu lektoreak, “Nuestro Pueblo, blanco y rojo” eta “Flor blanca y roja, la libertad”. Bi hipotesi planteatzen dira: bat, ez duela “orlegi” hitza ezagutzen, edota, bi, nahita ezkutatu duela ikurrinari egiten zaion erreferentzia, kontuan izan behar baita artean legezatu gabe zegoela. Interesgarria da bigarren hipotesi hori, izan ere, alde batetik, Euskal Herriaren askatasun aldarria nabarmentzen du lektoreak, arazotsua iruditzen zaiolako, baina, bestetik, ikurrinari egindako erreferentzia ezkutatu du.

Obra bereko beste poema bat itzultzean (ikusi 2. eranskina, 2.2. adibidea), berriz, “gorri” hitzaren polisemia ezagutzen duela erakusten du lektore-itzultzaileak, baina, aldiz, ez ditu jasotzen poetak dilogia bezalako baliabide literarioak erabiliaz iradokitzen dituen interpretazio posibleak: “Arkaitz-gorri” – “Aitzgorri”/ “Urbia, belartsu”. Esan genezake, gehienetan, galdu egiten direla halako baliabide eta joko literarioak lektorearen itzulpenetan, eta berak egiten duen interpretazioa dela, soilik, jasotzen duena. Beraz, literatur testua sinpletuta aurkezten du, itzulpena ideia bat nabarmentzeko egiten duelako, frogagarri gisa. Alegia, ez du testua itzultzen bere esanahi eta balio osoan beste hizkuntza batera eraman nahi duelako.

Halaxe gertatzen da aztertu ditugun gainerako pasarte itzulien kasuetan ere. Gainera, denborak aurrera egin ahala, gero eta arinagoa da irakurle zentsorearen itzulpen eta interpretazio ahalegina.

Jon Miranderen *Orhoituz* argitaratzeko eskaria Juan Simon Jimenezek egin zuen 1976ko ekainaren 10ean, eta bi egunen buruan lortu zuen argitaratzeko baimena. Alabaina, susmoa sortu zion irakurleari “Jeiki Jeiki” poemak, 1976an Kriseilu etxeak argitaratutako edizioan olerkiak duen oharrean zehazten denez, lehenago *Euzko Gogo* aldizkarian argitaratua, 1950ean. Hona hemen 23 zenbakiarekin sinatzen duen irakurleak egindako txostena (AGA 6992-76 esp., 73/05546):

ORHOITUZ (Recuerdos) es el título de esta obra poética que recoge diversas composiciones (obras completas o todos los poemas, dice el editor) del vasco francés Jon Mirande. Tras una breve presentación biográfica, se presentan los poemas de temática diversa: el atardecer, las ranas, el akelarra, dos cuervos, tuve un amigo, Pifgall, las mujeres, mi amada, etc. Entre todos estos poemas, algunos de ellos religiosos, hay que notar el que aparece en las

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

páginas 23-34: Jeiki, Jeiki (Levántate, levántate), dedicado a la unión y a la lucha, pues “desde hace tiempo hemos vivido bajo la mano extranjera... Levantáos, levantaos, para ser mañana dueños y echemos todos los enemigos de nuestra patria”.

A pesar de esta llamada, que podría interpretarse con buena voluntad en un sentido genérico de promoción regionalista, autonomista etc..., la obra no parece sin más denunciabile. *

(23) Madrid 11 de junio de 1976

Eskari honi dagokion dokumentazioan, aparteko orrialde batean aipatu olerkiaren itzulpena dakar (ikusi 2. eranskina, 2.3. adibidea). Itzulpena literal samarra da, baina ohar bedi “biar nausi izaiteko / mithil ba gira egün” emateko “para ser mañana dueños” itzultzen duela irakurleak, aurreko pasarteetan egin ez bezala, olerkiaren lerro bat itzuli gabe utzita. Literalki honelako zerbait litzateke euskarazkoa “para ser mañana adultos los que somos hoy chicos” edo gisakoren bat. Ostera, “chica” eransten dio “sorterria” hitzari hurrengo lerroan. Gainera, irakurleak beharrezko deritzo “patria chica” gisa eman duen “sort-herria” zer den ohar batean argitzeari, “patria, lugar de nacimiento” dela adierazten du. Nabarmentzekoa da, halaber, “etsaiak denak eho ditzagün” lerroko “eho” emateko “espantar” hitza darabilela, non eta erabil zitekeen beharbada “triturar”, “moler” edota “golpear duramente”.⁵

Irakurle-itzultzailearen esku-hartzeari dagokionez, argi dago badela inplikazio politiko-ideologikorik itzulpen horietan. Kasu honetan, pentsa liteke, adibidez, testua “leuntzeko” eta euskaraz ulertzen ez duen zentsorearen begietara testuaren karga arintzeko intentzioarekin egin duela itzultzaileak. Baina, pentsa liteke, halaber, aberria “txikitzeko edota gutxieteko” asmo bat ere egon litekeela itzultzailearen aipuan. Gogoan hartu beharrezkoa da lehenago ere argitaraturik zegoela poema hau, jada zirkulazioan, eta bestelako kasuren batean ikusi izan dugunez, jada zirkulazioan ziren edukiekin ez ziren zentsoreak gehiegi tematzen.

Euskal Herriaren batasuna da arazo iturri Luis Baraiazarraren *Euskal Herriaren Historiaren* bigarren alean. 1977ko azaroaren 23koa da eskaria, azaroaren 30eko sarrera data du, eta abenduaren 1ean ematen zaio argitaratzeko baimena. Tartean, honako irizpenak ematen dituzte zentsore irakurleek (AGA 13697-77 esp., 73/06389):

HISTORIA VASCA: Se compone de dos tomos. En el primero describe la historia de los vascos hasta la conquista de Navarra por Fernando el Católico. No has nada que objetar.

En el segundo describe la historia de los vascos desde esa fecha hasta nuestros días y se plantea el problema del futuro del Pueblo Vasco, que ya, no conforme con los Fueros y el Concerto Económico, mira a la creación del Estado Vasco bajo el lema de la unidad de las siete provincias, que podría encontrar acome y solución satisfactoria a sus problemas de

⁵ (Ikusi Orotariko Euskal Hiztegia “eho” sarrera:

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu&definizioak=0&query=eo&sarrera=144729)

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

identidad, claramente definida por su etnia e idioma en la integración de la Unidad Europea. Este aspecto se desarrolla explícitamente en las páginas 176/177 y estimo que lesionan el principio de la unidad de la Patria o de las tierras de España, por lo que estimo que
EL PRIMER TOMO: AUTORIZABLE=NO IMPUGNABLE y
EL SEGUNDO TOMO: DENUNCIABLE
Adjunto traducción de las páginas 176/177.
Pie de imprenta: completo.++

OBSERVACIONES Madrid, 1-12-77

A través del informe emitido por el lector, puede deducirse que el presente depósito de la Editorial "Mensajero" es una simple panorámica histórica del país vasco, sin demasiada conflictividad y dentro de las líneas generales utilizadas en multitud de publicaciones e incluso en medios de comunicación como la Radio y Televisión en el desarrollo de este problema.

Si efectivamente lo más conflictivo a criterio del lector se encuentra en página 176 y 177, cuya traducción se acompaña, no parece existir dudas en cuanto a la conveniencia de que el depósito sea tolerado sin proceder a impugnación alguna.

RESOLUCIÓN:

Cumplidos los requisitos del Depósito previo a la difusión, exigido por el artículo 12 de la vigente Ley de Prensa e Imprenta. Madrid 12 DIC 1977

Dokumentazioarekin batera 176-177 orrialdeen edukiaren itzulpena ageri da, espediente zenbakia duena goiburuan (ikusi testua 2. eranskinean, 2.4. adibidea). Kasu horretan ere, aurreko adibidean genioen ildotik, jada gizartean zabal diren ideiekin ez da gehiegi tematzen zentsore nagusia eta ez dio salagarri irizten liburu batean jasotzeari. Irakurle zentsore euskaldunak egiten duen itzulpena dela eta, ez dago aparteko auzirik, salbu hitzen bat omititu egiten duela (ahaztuta, beharbada) edota pasarteren bat itzultzeko zailtasunak dituela —geroago aipatuko dugunez, eta Torrealdaik aipatu izan duenez (2000: 150), euskal irakurleen hizkuntza maila eskasa tarteko—. Bereziki eman digu arreta justuki "deserdiratzea" (desezentralizatzea) izatea omititzen edo ahazten duen hitzetako bat, justuki hori denean lana inpugnatzeko baliatu nahi duen ideietako bat. Torrealdaik zioen (2000) askotan euskal delegazioa edota euskal zentsorea izaten zela erdalduna baino gogorragoa, eta badirudi hala dela honakoan ere, nahiz eta euskaradunak, bere ideiak indartzeko ez duen itzulpenaren zehaztapenetan ituan jotzen, seguruena hizkuntza mailari dagozkion arazoak tarteko.

Aurreko adibidean bezalaxe, ideologia kontuak direla eta itzultzen da lanaren pasarte labur bat 1979ko maiatzean Emilio Lopez Adan-en *Euskadi 1984* argitaratzeko eskaria jasotzen duen dokumentazioan. Torturen eta atxiloketen kontra ari diren pasarteak nabarmentzen dira. Halaber, separatismoaren apologia egiten duela irizten da, eta paragrafo bat hautatzen da ideia nabarmendu eta agerian jartzeko. Paragrafo hori itzulirik ageri da. Alabaina, ideiak zirkulazioan dabiltzala eta, ez da atzera botatzeko modukoa. Honela dio 1979ko maiatzaren 21eko txostenak, "PARTE DICTAMINADORA: En las páginas anteriores queda recogida la parte másnegativa del libro, mucha de la

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

cual, ya ha sido dicha por distintos medios de difusión, por lo que no es fácil encontrar una base razonable para su impugnación” (AGA 5138-79 esp., 73/06948).

Juan Jose Garmendia ageri da eskatzaile 1977ko apirilaren 6ko datarekin Paben Loidiren *Txiruliruka olerkiak* izeneko bildumaren dokumentazioan, eta lan horretan ere abertzaletasuna eta zentralismoaren kontra egiteak sortzen du ardua irakurle euskaldunarengan. Halere, egilearen hizkuntza moldea aringarri da: herri hizkera darabil Loidik bere lanean, eta Torrealdaik esanaren ildotik, hizkuntzaren berezko garapenak, hizkuntza normalizatu eta landuak, ematen du arazo gehiago (2000: 127) aurreko zentsura aldietan behintzat. Azken erabakia irakurle edo zentsore nagusiari eskatzen dio. Honakoan ere, azken horrek ez omen du oztoporik ikusten, eta argitaratzeko baimena ematen du 1977ko apirilaren 20an (eskaria apirilaren 4koa da, eta sarrera erregistroa apirilaren 14koa). Hona hemen espedientean jasotako irizpena (AGA 4832-77 esp., 73/06060):

POESIA: Es una colección de poesías del autor. Hay de todas clases. Prevalcen las costumbristas. En las páginas 109/110 hay una bastante fuerte que, en general hace referencia al idioma vasco, pero que rezuma nacionalismo y antcentralismo. Estimo que es tolerable por el marco idiomático en que está elaborada y es excepción en el conjunto de la obra. No obstante, envío la traducción para que opine la superioridad.

Pie de imprenta: completo.

NO IMPUGNABLE.

Halakoetan, arazotsuak izaten diren pasarteak markatu egiten dituzte irakurleek. Kasu honetan, liburuan bertan poema ageri deneko orrialdearen ertza tolestuta ageri da espedientearen dokumentazioan. Halaber, dokumentazioan eransten den itzulpenaren kopian marka eskuizkribatuak ageri dira, boligrafo gorritz zein urdinez, nolabait, ikusarazi nahian zein diren esamolde eta pasarte konfliktiboak (aurreko irudian bezala). 2. eranskinean jaso ditugu arazo iturri den poemaren itzulpena, eta argitaratutako bertsioa, parez pare. Bada, bi testuak erkatuta ikus daitekeenez, pasarteren bat itzuli gabe utzi du irakurle-itzultzaile euskaldunak, hitzen bat gaizki itzultzen du eta badirudi pasarteren bat ere ez duela ondo ulertu. Dena den, badirudi ez dagoela esku-hartzeko ideologiko berariazkorik testuan.

Lektore irakurleen hizkuntza maila eta itzulpen okerrak aipatu ditugu eta, hain zuzen ere, gai horri heldu nahi genioke kapituluari bukaera emate aldera. Torrealdaik esandakoak berretsita (2000, 2019), 1975-1983 urte bitarteko fitxen azterketa eginik ikusi dugu itzulpenak ez direla beti egokiak izaten. Iruzkindu berri ditugun itzulitako pasarteetan sarri ageri dira itzulpen okerrak, hizkuntzaren ezagutza ezarekin loturik egon daitezkeenak. Bada, itzulitako pasarte luzeenetan ez ezik, gisa bereko akatsak ageri dira bestelako aipamenetan ere. Adibide baterako, aipa genezake 1975eko irailean egindako eskariaren txostenean *Eneko Haritza* izenburua “El roble de Eneko (Iñigo)” gisa

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

itzultzen duela 23 zenbakiz sinatzen duen irakurleak, 'Haritza' pertsona izen gisa identifikatu gabe (AGA 10083-75 esp., 73/05039), edota urte bereko azaroan zentsurara aurkezten den Lourdes Iriondoren *Buruntza azpian* lanaren izenburuan toponimoa identifikatu ez eta "Bajo en cazo (o Bajo el tridente)" gisa ematen duela. Kasu horretan, gainera, nabarmentzekoa da onartu ez ezik, gomendatu egiten duela lana euskarazko irakurleak (AGA 13141-75 esp., 73/05196):

Es una pieza de teatro infantil: "Bajo en cazo (o Bajo el tridente) y todos patas arriba" es el título. La obra ingenua, es moralizante. Los consejos de hacer el bien, ayudar al prójimo, los juegos, las hadas y demonios forman un conjunto de fondo educativo general. Aconsejable

Beranduagoko lana da Jose Angel Irigarairen *Kondairaren ihauterian* olerki bilduma. Lanaren izenburua modu literalean itzuliz gero "En el carnaval de la historia" edo gisakoren bat emango luke. Bada, H markarekin sinatzen duen irakurleak, "En la historia de los carnavales" ematen du (AGA 12498-78 esp., 73/06799). Halako adibide ugari aurki dezakegu Olabeagaren *Maite dedana* (1975) poema liburuaren espedientearen ere, "Apur-apurrak" poemaren itzulpenean, esaterako (ikusi 2.2 eranskina).

Ulermen arazoa adierazpen arazo ere bihur liteke, eta obraren edukia azaltzeko orduan ere eragiten du askotan. Hara nola ematen duen 1975eko uztailaren 7an euskal irakurle zentsoreak Sopena argitaletxearen *Amatxo* ipuinaren berri: "El niño raptado se cria en el bosque, donde le encuentra la princesa. Al fin reconoce a su madre y se casa con una de la familia real." (AGA 8134-75 esp., 73/04940). AGAn dokumentazioarekin batera gordetzen den lanaren bertsioan irakurri daitekeenez, ordea, ipuinak kontatzen du printze txiki bat basoan aurkitu eta hazi egiten duela neskatila batek. Bada, neskatila horri esaten dio mutikoak "Amatxo". Azkenean, errege-erreginek aurkitu egiten dute umea eta hura eta bere basoko zaintzailea gaztelura eramaten dituzte, eta ezkondu egiten dira.

Azkenik, HGLko espediente bat dugu, Nikolas Alzla *Bitañoren Hirugarren atalak* lanari dagokiona, eta 1978ko urriaren 20ko data du argitaratzeko eskariak. 30 zenbakidun irakurleak eta H gisako ikurra darabilenak sinatzen dute dokumentazioa (AGA 12041-78 esp., 73/06786). Kasu honetan, gatazkari edota indarkeriari lotutako pasarteak dira lektoreak itzulpenaren bidez nabarmentzen dituenak. Interesgarri da ohartzea gazteentzako irakurketatzat proposatutako lana, edukia tarteko, nagusientzakoan atalera pasatzen dela eta, kasu horretan, aurrera pasatzen dela. Honela dio txostenak:

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Tratándose de una edición en vascuence (idioma desconocido por este lector), procede requerir el juicio de otro lector conocedor de este idioma, antes de proceder a las autorización definitiva.

[sinadura]***

[Idazkera argiago batez, irakurle euskaldunak]:

El contenido de los poemas especialmente en las pags. 45, 75, 76 y 77, no se estima adecuado para los niños, por lo que se propone calificación para adultos o la supresión de los textos de dichas páginas.

Madrid, 13 de noviembre de 1978.

OBSERVACIONES

Se recomienda el cambio de calificación y el pase a Adultos, o la supresión de los textos de las pags. 45, 77, 76 y 77, debidos a contener unas exaltación de la violencia lo que es inadecuado al publico lector (infantil) a que va dirigida esta publicación.

Madrid, 15 de noviembre de 1978.

RESOLUCION: Cumplidos los requisitos del Deposito previo a la difusión, exigido por el articulo 12 de la vigente Ley de Prensa e Imprenta

Madrid, 08-11-1978

Abertzaletasuna edota gatazka iradoki dezaketen gaiak ez dira zentsore irakurleen iritziz gazteentzat onargarri eta "Biolentziaren gorazarrea" ikusi izana loturik dago olerkietako batean Hondarribian hildako Jexux Mari aipatzeari eta gogoratzeari. Liburua bera ere gordetzen da dokumentazioan, eta irakurlearen markak ageri dira bertan. Bada, markaturiko orrialde horietako olerki zenbait gaztelaniara itzulita ageri dira dokumentazioan (ikusi 2. eranskina). Ez dago nabarmentzeko handirik itzulpen horretan; hemen ere akatsak ageri dira eta 'sendi' (familia) 'camino' gisa ematen du, adibidez. Bestalde, aiparri da, halaber, irakurleak ez duela jazoeraren berri ematen duen oharra itzultzen (ikusi 2. eranskina: "1976-IX-8 arratsaldeko 8etan hil zuten Hondarribian Jexux-Mari).

Esan genezake, beraz, txostenekin batera irakurleak aurkezten dituen itzulpenek ez dituztela, zentsuraren aldi honetan ere, obren pasarteak zehaztasunez aditzera ematen. Aitzitik, irakurleari arazotsuak iruditzen zaizkion edukien frogagarri txertatzen dira espedienteetan, ideia horiek benetan azaltzen direla erakusteko, nolabait, baina zuzentasuna, zehaztasuna eta testuaren literariorotasuna zaindu gabe. Zentzu horretan, kontrastea nabarmena da gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenen eta irakurleak euskaratik gaztelaniara egindakoen artean: gaztelaniazko (jatorrizko) testuarekiko

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

fideltasuna aipatzen da, behin eta berriz, euskarara ekarritako testuak balioesterakoan; kontrako noranzkoan, berriz, euskaraz gatazkatsuak izan litezkeen pasarteak *grosso modo* azpimarratzeko balio du itzulpenak irakurlearentzat.

6. Ondorioak

Eskura ditugun edizio datuei eta Alcaláko Artxibo Nagusian gordetzen diren zentsura espedienteen azterketen kuantifikazioari begiratuta, esan dezakegu itzulitako lanen kopurua eta garaian argitara emandako itzulpenen ehunekoa bat datozela, gutxi gorabehera, eta, ildo horretan, gure azterketarako erabilitako corpora ez dagoela desitxuraturik garaiko edizio gintzaren irudiaren aldean.

Bestalde, esan dezakegu ez dirudiela itzulpenen (zein bestelako lanen) izaera ezkutatzeko asmorik dagoenik, ez argitalpenak eskatzen dituzten eragileen aldetik, ez zentsura prozesuko arduradunen aldetik. Besterik da ez dela itzulpenaren berri modu sistematikoan ematen; izan ere, itzultzailea aipatu egiten da zentsurara aurkezten den dokumentazioan kasuen ia herenean, eta bestela ere egiten da ikusgarri, dela dokumentazioan egiten diren marken bidez (“trad.” edo “adap.” adib.), dela aurkezten diren testuen maketetan erreferentzia egiten zaielako itzulpenari edota itzultzaileei zein jatorrizko testu eta bertsioei, dela zentsura prozesura aurkeztutako maketa horien materialtasunak argi agertzen duelako testu itzulia dela argitaratu gura den hori. Gainera, dokumentazioak eman dezakeen edo ez dezakeen datua irakurle zentsoreek dakarte; izan ere, sarri identifikatzen dute itzulpena, gehien-gehienetan gaztelaniazko bertsioari egiten dioten erreferentziaren bidez. Itzulpenaren jatorrizkoa gaztelaniazko testua da gehienetan, eta hari egiten diote erreferentzia, baina hala ez denetan ere, gaztelaniazko izenburuarekin identifikatzen dute. Gaztelaniazko bertsioak dira erreferentziazkoak euskarazko itzulpena erkatzeko eta balioztatzeko.

Irakurle zentsoreei gagozkiela, badirudi aztergai dugun garaian ez daudela aurreko zentsura aldietan itzulpenekin izaten zuten jarreran, eta itzulpenak onartu egiten dituztela. Ildo horretan, ez dugu itzulpenei buruzko ohar nabarmenik aurkitu, ez eta itzulpen izategatik beragatik gelditutako argitalpenik. Itzulpenez egiten diren oharrak izendatze hutsak dira, itzulpenean berean sakontzen ez dutenak. Halaber, itzulpenez egiten diren aipamenak gaztelaniarekiko lotura aurkeztekoak dira. Fideltasuna da aipagarri gehientsuenetan, aurkezten den lana jatorrizkoarekiko fidela den edo ez; funtsean, gaztelaniazko bertsioaren eduki berak jasotzen dituela nabarmentzen da kasu gehientsuenetan. Nabarmentzekoa da 1978ra arte egiten direla gehienbat gisako oharrak, eta gero ia desagertu egiten direla.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

Aztergai dugun garaian irakurle zentsoreek kultur estatusa onartu diote euskarari, onartzen dira itzulpenak, aurreko garaietan ez bezala; honakoan, baina, haur eta gazteentzat zabaltzen diren edukiek arduratzen dituzte gehienbat zentsoreak. Edukien berri emateko, normalean, obraren laburpen gisako parafrasi edo itzulpen laburtua ematen du euskarazko irakurle zentsoreak. Garaiko edizio gintzan haur eta gazteentzat emandako lanak nagusitzen dira kopuruz, eta zentsura prozesura ere haur eta gazte literaturako lanak dira gehien aurkezten direnak. Fitxa horien azterketatik ondorioztatu dugunez, etengabe aipatzen da umeei zuzendutako argitalpena izateak dakarren garrantzia eta arriskua. Gaztelaniazkoen bertsio eta itzulpen izanik ere, automatikoki eskatzen da euskarazko irakurlearen oniritzia eta testuen erkaketa, hain zuzen ere haurrentzako edukiak izanagatik eskuartean dituztenak. Ez da berdin gertatzen nagusiagoi zuzendutako testuetan; itzulpen zenbait dagoeneko zirkulazioan baldin badaude gazteleraz, edota lehendik ere zirkulazioan badabilta testuan jorratutako ideia desagokizat joak, baimendu egiten dira, erkatzeko eskatu gabe zein Delegaritzaren Probintzietatik egindako abisu edo euskarazko irakurle zentsoreek egindako abisuen gainetik.

Arreta berezia jartzen dute zentsore irakurleek testuen eduki sozio-politikoetan zein erlijio eta moralari lotuetan (lehenagoko zentsura aldietan bezalatsu), nahiz eta askoz gutxiago diren gisa horretako edukiak dakartzaten generoetako lanak aurreko zentsura aldien aldean. Badira aipamen zenbait, hala ere, espediente bakan batzuetan, zehazki helduentzako entziklopedia zein historia liburu edota olerki bilduma batzuen kasuan, eta artegatu egiten dira “edukien zaindariak”, batez ere euskaradunak. Auzi politikoak, lurraldetasunarekin, independentziarekin edota erregimen frankistarekin zerikusia dutenak dira aipamen horiek gehientsuenetan, eta, batez ere, 1975-1978 aldian agertzen dira.

Bere juzgua frogatzeko, euskal irakurle zentsoreak itzuli egiten ditu susmagarritzat jotzen dituen pasarteak, eta txostenarekin batera aurkezten. Itzulpen horien bilakaera ulertzeko, esanguratsua da testuinguru historiko politikoaren bilakaera. 1975eko espedienteetan atxikitako itzulpenak luzeagoak dira, eta nabarmenagoa da irakurleak egiten duen saiakera obra horiek izan ditzaketenez mezu gatazkatsuak interpretatu eta bistaratzeko. 1976-1978 artean ere badago espedienteari atxikitako itzulpenik, baina irakurleak gutxiago sakontzen du obraren interpretazio posibleetan. 1978tik aurrera, berriz, ez dugu halako itzulpenik aurkitu aztertutako espedienteen eranskinetan.

Euskal irakurle zentsoreak egindako itzulpenak jatorrizko testuekin erkatuta, argi ikus dezakegu askotan ez direla itzulpen fidelak edo zehatzak izaten. Ideologia tarteko egiten

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

ditu susmagarritzat jo daitezkeen pasarteen itzulpenak eta azpimarrak, esku-hartuta. Esku-hartze horien ondorioz, testuaren karga arindu daiteke, egileen ideiak gutxietsi, norberaren ideiak nabarmendu... Halere, askotan ez da argia esku-hartze horien motibazioa, batez ere zentsoreak darabilen euskara maila kaskarragatik. Zentsore irakurleak ez dira 60ko hamarkadatik hona aldatu, eta, beraz, berretsi baino ezin ditugu egin Torrealdairen esanak.

Aztertutako corpusaren argitan, hasierako espediente bakan batzuetan baino ez da ageri itzulitako pasarte luzerik; gehienbat, izenburuak edota lanaren erreferentziak zein edukien inguruko zehaztasunak emateko datuak itzultzen dituzte irakurle zentsoreek (bildumen izenak, liburu atalen izenak...), esan bezala, obrak identifikatzea delarik helburu nagusia. Identifikazio hori gaztelaniazko izenburu eta erreferentziak baliatuta egiten da, eta horrek argi uzten du gaztelaniarekiko menpekotasuna eta gaztelaniazko kultur ekoizpenen erreferentzialtasuna, irakurleek egindako oharretan ere berretsi daitekeena.

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

BIBLIOGRAFIA

Alzola, Nikolas. *Bitaño* (1978). *Hirugarren atalak*. Bilbo: Gero-Mensajero.

Baraiazarra, Luis. (1977). *Euskal Herriaren historia*. Bilbo: Gero-Mensajero.

Elizalde Estenaga, Amaia. 2018. Zentsura-ikasketak euskal literaturan: mugak zabaltzeko beharraz. Jon Miranderem kasua abiapuntu. *Euskera*, 63(2), 641-670

Ibarluzea Santisteban, Miren. 2017. *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. Online eskuragarri: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/26629/TESIS_IBARLUZEA_SANTISTEBAN_MIREN.pdf?sequence=1&isAllowed=y

Ibarluzea Santisteban, Miren. 2018. Zentsura, itzulpena eta ideologia: zenbait ikerlerro euskal ikasketen eremuan. *Euskera*, 63(2), 695-730.

Lobejon, Sergio. 2013. Traducción y censura de textos poéticos ingles-español en España: TRACEpi (1939-1983). León: Universidad de Leóneko doktorego tesia. Online eskuragarri: <https://buleria.unileon.es/handle/10612/6133>

Loidi, Paben. (1977). *Txiruliruka: Olerkiak*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión.

Mirande, Jon. (1976). *Orhoituz*. Donostia: Kriselu.

Olabeaga, Iñaki. (1975). *Maite dedana*. Erandio: Telleria.

Torrealdai, Juan Mari. 1984. *Euskal Kultura gaur. Liburuaren mundua*. Oñati: Jakin.

Torrealdai, Juan Mari. 2000. *Artaziak*. Zarautz: Susa.

Torrealdai, Joan Mari. 2019. *De La Hoguera Al Lápiz Rojo: La Censura Franquista En El País Vasco*. Donostia: Txertoa.

Trintxerpe, Gorka (1975). *Gorriak*. Iruñea: Idatz. Hemendik hartua: <https://armiarma.eus/gordailua/TrintxerpeGEztenGorriak.htm>

ERANSKINAK

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldiari. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

1. eranskina:

1975, azaroak 20

Gasolina usainez eta grasaz beterik eman zidan,
ogi salutatua eskaintzen den bezelaxe,
periodiko bat ematen den bezelatsu,
bihotz zati bat erregalaten den bezala,
hiriko kale arteko kutsaduraren itzalpetan;
txoferren esku dardaratiz eman zidan
zemento bloke zapalkorren hatzaparpetan
sorturiko basalorea,
bertso-paper zaharren poz berria:

«Pedro Urtia ere
ein da enteratu
Franco nola daukagun
oraintxe defuntu;
Jainkoak eiten badeu
gixontxu au santu,
imini ein daiela
zeruetan altu
eztiten a barrero
mundura bajatu.»

Goizean eman zidan,
askatasun eguzkiaren goizean,
eta bertso-paper zahar baztertuen hauts negarrak
irribarre egin zuen disdiska.

Iturria:
<https://www.armiarma.eus/zarate/bizi.htm>

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

2. eranskina

*Testu hauetako marka grisak artikulugileenak dira.

<p>2.1. adibidea</p> <p>Lunes.- Mi pueblo ha cantado en latin. Dios, por lo visto no entendía nuestro idioma; en latin ha rezado mi pueblo. Sus cuidadores no sabían el vascuence y no lo aprenderán jamás... por lo visto, no sirve para la vida del cielo... EN CASTELLANO HAN MANDADO A MI PUEBLO, EN CASTELLANO LE HANLAMOS; LE HABLAMOS.. NOSORTROS NOSOTROS NOSOTROS LE MANDAMOS A XXXXXX MI PUEBLO. Sin embargo, ha vivido en vascuence, ¿tal vez ha vivido?, ha vivido o ha muerto?... Los muertos no alejan a las moscas de la boca-</p> <p>(Considero que en sí es aceptable. Con ocasión del catalán hubo una polémica pública en prensa, pero ese tono y esa contraposición con el castellano no parece oportuno en la actualidad).-</p> <p>(AGA 11147-75 esp., 73/05098)</p>	<p>ASTELEHENA</p> <p>Latinez du kantatu ene herriak Jainkoak ez zuen ulertzen nonbait gure hizkuntzarik latinez du otoitz egin ene herriak sainduak euskeraz ez zekiten eta ez dute ikasiko noski ...«zeruko bizimodurako ez baitu balio»... erderaz diote agindu ene herriari erderaz diogudiogudiogu... gu gu gu guk geuk ene herriari agindu. Euskeraz ordea euskeraz izan da bizi bizi ote? bizi ala hil? ... hilek ez dute eulirik ahotik bialtzen!.</p> <p><i>Ezten gorriak (Trintxerpe 1975)</i></p>
---	--

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>2.2. adibidea</p> <p>Ambos venían del monte con el corazón lleno de alegría y llenos de aliento al ver la patria en pie. Pero en una esquina les esperaba el ladrón de la muerte. Amargura, llanto. Nuestro Pueblo, con dolor en el corazón, ahora, siempre.</p> <p>Las semillas mojadas de sangre y enterradas, resucitan de nuevo, y dan fruto. Los montes de nuestro Pueblo, todos ellos, están tintos en sangre. Cuándo será su resurrección?. Nuestro Pueblo, blanco y rojo.</p> <p>Mantender, mantened, agora y siempre. Mantened nuestro idioma, nuestra fe. Llegará la Pascua, llena de luz. Flor blanca, roja, la libertad. Vasco, creyente, mantengámonos!!!</p> <p>(AGA 2848-76 esp., 73/0537)</p>	<p>Menditik, biotza poz-pezik, zetozen biak, Aberri zutik ikusirik, arnas betiak. Zornotzan ixtripu ilkorra, ala bearra! An zuten zai eriotz lapurra. Samin, negarra! Gure Erri, biotz miñ, gaur, beti!</p> <p>Odol bustitako aziak lurperatu ta, omen du berpizte berria, frutu naroa. Gure Erriko mendi, alorrak, euskal odolez ezetuak dira dan-danak. Noizko berpizte? Gure Erri, orlegi, ta zuri, ta gorri!</p> <p>Eutsi, eutsi, gaur eta beti, eskuan zuzi! Eutsi, eutsi gure izkuntzari, sinismenari! Etorriko da Pasko alai, dizdiz betea. Lore orlegi, zuri, gorri, azkatasuna.</p>
--	--

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>.....Pueblo vasco, peña descarnada, cada vez más acuciada... Que me voy oscureciendo... Que ando en nada.... Pudiera ser,... pero,,, No, No... de nuevo, no... Mi esperanza la mantengo viva. Si en Aitzgorri no podemos laborar, ahí está Urbía, llena de hierba. Las enseñanzas de Sabino las tenemos en los escritos. Joven vasco, toma y léelos.</p> <p>(AGA 2848-76 esp., 73/0537)</p> <p>Hoy en día muchos bichos en el Pueblo vasco. Los policías, como los perros tras los gatos. Piden en todos los rincones la “documentación. Entre tanto los coches, a modo de culebras, esperando y</p>	<p>Euskaldun, fededun, iraun dezagun!!!</p> <p><i>Maite dedana</i> (Olabeaga 1975: 9-10)</p> <p>Euskal-erri, Arkaitz-gorri, Gero ta geiago larri... Illunpe idazten ari naizela... Ezezkor nabillela... Ba-liteke... bañan... Ez, ez... Berriz ez... Nere itxaropena, bizkor daukat. Aitzgorri'n ezin bai-degu errotu, Orra, Urbia, belartsu. Sabino'ren erakutsiak, Idatzietan dauzkagu.</p> <p>Euskal-gazte, Artu... ta, irakurri itzazu.</p> <p><i>Maite dedana</i> (Olabeaga 1975: 34-35)</p> <p>APUR-APURRAK</p> <p>Gaur bertan sumurru asko Euskal-Errian. Poliziak, txakurra katu atzetik lez. Bazter guztietan “documentación” eske.</p>
--	--

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>esperando largos ratos. Sin consideración alguna de los hombres que esperan. Uno de Olabeaga menos. Se nos ha ido la prima Manolita. Y tu suerte cuándo lo tendrás? Pronto o un poco más tarde?.</p> <p>En la iglesia de Roma, al menos de vez en cuando, rezaré en vasco. Aqué en el Pueblo Vasco, quisiera que fueran en vasco todos los rezos.</p> <p>Estoy escuchando la radio. Todo lo que se hace en España es hermoso o todo bien hecho. Que casi todo lo que dicen es mentira, a mi parecer, estoy muy seguro. Cuántas cosas las que se han pasado!. El ruido de carnaval... los hombres vestidos de mujeres; las mujeres de hombre....</p> <p>hoy se nos ha ido la abuela al cielo con noventa y dos años. Aunámonos con ella.</p>	<p>Bitartean berebillak, suge antzean, itxoin eta itxoin denbora luzez. Gizon arrunten ajolik batez, zein legez?</p> <p>Olabeaga'tar bat gutxiago. Manolita lengusua joan zaigu. Ta zure txanda noiz izango dezu? Laxter edo pixkat beranduago?</p> <p>Erroma'ko etxe-nagusian, noizian-bein behintzat, jatorduko otoitzak euskeraz, omen dira esanak. Emen, Euskal-Errian izan da, nai nuke neretzat, ta ez jatordutan bakarrik baita otoitz danak.</p> <p>Irratia entzuten nago. Españian egiten dana, dana eder, ta dana ondo. la danak gezur dirala, nere ustez, ziur-ziur nago.</p> <p>Zenbat gauz joan diranak! Iñauteriko zarata, Zomorro, gurdi apañak. Gizonak andrez jantzita; gizonez emakumeak.</p> <p>[...]</p> <p>Gaur amona Silberí'ren txanda larogei ta amabi urtekin joan zaigu zerura Jaunagana. Alkartu gaitzala berarekin.</p>
--	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>Lo que acontece en España me da asco. Justicia! Se grita. No son mentiras grandes.</p> <p>A Elorza, señor amante de lo vasco le han condenado a siete años de cárcel. A los ladrones de Matesa, ea, libres en sus casas. “Pide pan y recibes tiros”.</p> <p>Cien, he ahí el grito de los trabajadores. Dos muertos en el Ferroñ. Lamentable. Cosas que hay que ver en este siglo. Verdaderamente lamentable.</p> <p>También hoy tenemos que decir: llevamos una vida triste, pies y cabeza atados con cadenas.</p> <p>No cabe en mi cabeza cómo vivimos tan atados. Hay que ser cuervo. Perro atado en la caseta. Daós cuenta, cómo somos.</p> <p>Jóvenes que estáis durmiendo, despertaos y soltad cuanto antes las ataduras.</p> <p>De nuevo sangre en los montes vascos. Grandes mentiras en los labios. El calor de las balas es agudo, pesado que derrama la sangre vasca.</p> <p>Hoy las pequeñas descarnadas de las montañas están tintas en sangre.</p>	<p>España’n gertatzen danak, naska ematen dit. Zuzentasuna! diadarka; ez gezur aundirik.</p> <p>Elortza eusko-kementsu Jaunari, zazpi urteko espetxe. Matesako lapur zitaleei, orra! etxeetan azke.</p> <p>“Ogia eskatu ta tiroak artu.” Egun, orra langilleen diadarra. Ferroñ’en bi gizon il; naiko negarra. Mende ontan ori ikusi bearra! Bai benetan negargarri ta tamala.</p> <p>Gaur ere esan bear: Yopu bizitza daramagu, katez lotuta ankak, buru.</p> <p>Nere buruan ezin sartu, nola bizi garan aiñ lotu.</p> <p>Arranoa bear izan! Txakur lotua etxolan. Oartu bai, nola garan. Lotan zauden gazte esnatu, len-baitlen loturak azkatu.</p> <p>Berriz odola euskal-mendietan. Gezur galantak izparringietan. Balen beruna, zorrotz, astuna, Euskal-odola, ixurtzen duna. Gaur mendietako aitz gogorrak,</p>
--	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>Los funerales de Yon en Llodio estaban traspasados de dolor. Mucho joven y maduro. La policía también abundante para liza a todos.</p> <p>(AGA 2848-76 esp., 73/0537)</p>	<p>odolez, soro yori biurtuak.</p> <p>Derio'n Yon'en illetak naigabez bete dana.</p> <p>Gazte asko, aundi multzo, txit indartsu ta kementsu.</p> <p>Poliziak ere ugari oztopo jarriz deneri.</p> <p><i>Maite dedana</i> (Olabeaga 1975: 50-53)</p>
---	--

Testu hau honako honen aurreko bertsiotatik da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldiran. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>2.3. adibidea</p> <p>LEVANTAOS; LEVANTAOS</p> <p>Levantaos, levantaos, vascos - el día es hermoso- hermoso es el día:- desde el mar habla el cuerno de plata - ¿Despertará el oso viejo que está dormido, - el oso viejo que está dormido?</p> <p>Levantaos, levantaos, vascos -para ir a trabajar- para ir a trabajar.- Desde mucho tiempo hemos vivido bajo la mano extranjera - su sangre abonará a hora nuestra tierra - abonará nuestra tierra.</p> <p>Levantaos, levantaos, vascos -todos juntos amigos, todos juntos amigos-para ser mañana dueños, nos hacemos todos uno —para espantar a los que son enemigos de nuestra patria chica (sort-erria=patria, lugar de nacimiento).</p>	<p>JEIKI JEIKI VI</p> <p>Jeiki, jeiki Üskaldünak egüna da ederra egüna da ederra itsasotik mintzatzen da zilharrezko adarra iratzarriko othe da lo den otso zaharra lo den otso zaharra?</p> <p>Jeiki, jeiki Üskaldünak Ehaitera juaiteko Ehaitera juaiteko. Aspaldian ginen bizi arrotzen esküpeko hen odolak gure lürra orai dü gizenduko orai dü gizenduko</p> <p>Jeiki, jeiki Üskaldünak oro alkharren lagün oro alkharren lagün biar nausi izaiteko mithil ba gira egün sort-herriaren etsaiak denak eho ditzagün denak eho ditzagun!</p> <p>Ezagutzen dudan argitaraldi bakarra “Euzko-Gogoa”n egin izan zen 1950-eko 3-4 zenbakian, zarpigarren horrialdean, Guatemalan.</p>
--	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>(AGA 6992-76 esp., 73/05546)</p>	<p><i>Orhoituz</i> (Mirande 1976)</p>
---	---------------------------------------

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>2.4. adibidea</p> <p>EL PUEBLO VASCO Y SU PORVENIR</p> <p>Oimos que estamos en el momento de firmar un nuevo concierto económico y que no está lejos el día en que se implanten rejuvenecidos los Fueros. Esto es un gran avance en el camino de Euskal Herria para conseguir su propio ser.</p> <p>Tras el comienzo en el siglo pasado se han puesto grandes fundamentos en orden al futuro. En ese camino, el concierto económico no es de ninguna manera suficiente. El problema vasco no se reduce a lo económico. Es mucho más profundo. El primer propósito de los vascos fue la consecución de los Fueros. Pero más tarde otra ideó se fue apoderando: tras conseguir para cada provincia su personalidad, y tras pedir el estatuto formar un país libre con las siete provincias. Los Fueros y los Concierdos económicos Económicos, si bien eran similares en el Pueblo Vasco, declaraban la libertad para cada provincia. Hoy día y desde hace mucho tiempo, el vasco está mirando a otros fines, basándose en la unidad y la personalidad de cada provincia. Este propósito se ha plasmado en el lema LAS SIETE UNO. El Estatuto ya insinuaba algo de esto. Pero el Estatuto quedó desecho tras la guerra. Sabemos que,</p>	<p>EUSKAL HERRIA ETA ETORKIZUNA</p> <p>Zerga Itunak (Kontzertu Ekonomikoak) berriro zintzeko garaia gainean dela entzuten dugu, eta Foruak gaurkotuz berriro ezarriko diren eguna ez dela urrun. Euskal Herriak bere-berea duen tokia aurkitzeko aurrerakuntza haundia litzateke hori.</p> <p>Joan den mendean hasita, oinarri sendoko eritziak zabaldu dira Euskal Herriaren geroari buruz. Eritzi horien arabera, Zerga Itunak ez dira inondik ere aski. Euskal arazoa ez da ekonomi kontu hutsa, askoz ere sakonagoa baizik. Euskaldunen lehen asmoa, Foruak ezartzea izan zen. Baina gerora, beste helburu bat hasi zen nagusitzen: Probintzia bakoitzarentzat, lehenengo eredia kopiauz, estatutoa eskatu ordez, Euskal Herriko zazpi atalez osaturiko erakunde berri eta askatu bat sortu. Foruek eta Kontzertu Ekonomikoek, Euskal Herri osoaren funtsezko batasunean eta beronen nortasun berezian oinarriturik, erakunde berri batei begira jarrita izan da euskaldungoa. Gogo bizi honek "ZAZPIAK BAT" esaeran hartu du moldea eta gorputza. Estatutoak ere horrelako zerbait adierazten zuen. Estatutoa, baina, jaioberritan desegina izan zen gerraren eraginez. Estatutoak, hala ere, bai Herrian eta bai politik, gizarte eta ekonomi egoeran oinarri sendoak dituela dakusagu gaur egun.</p>
--	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>no obstante, el Estatuto tiene bases fundamentales en el Pueblo y en la política hoy día.</p> <p>También el Mercado Común Europeo es una fuente de esperanza para el Pueblo vasco. Ese Mercado Común quiere, en efecto, la unidad europea. Pero la clave de esa unidad estriba en la libertad de la etnia y del pueblo. Por ello, los que han adoptado la democracia como forma política pueden entrar en la Europa unida.</p> <p>El Pueblo Vasco, es una entidad de por sí en lo referente a lo económico. Pero tiene también cosas más propias: su etnia, su ser y su idioma sobre todo.</p> <p>¿Encontrará en la unión europea el Pueblo Vasco la clave de su futuro? Se satisfacerán dentro de esa Europa unida las aspiraciones políticas del Pueblo Vasco?.</p> <p>(AGA 13697-77 esp., 73/06389)</p>	<p>Europako Merkatu Batua ere Euskal Herriarentzat itxaropen iturri da. Merkatu Batu horrek Europaren batasuna nahi du, bai. Baina batasun honen giltzarri eta ardatz, <i>deserdirapena da</i> eta etnia eta herrialdeen askatasuna. Beraz, politik bide bezala demokrazia onartu dutenak bakarrik sar daitezke Europa batuan.</p> <p>Euskal Herria, berezko lurralde berezi bat da ekonomi aldetik. Baina hori baino gauza bereziagorik badu: bere enda, izaera eta hizkuntza batez ere.</p> <p>Europa Batuan aurkituko ote du Euskal Herriak etorkizuneko giltza? Batasun horren barruan aseko ote dira Euskal Herriaren politik asmoak?</p> <p><i>Euskal Herriaren historia</i>, 11. Ikasgaia (Baraiazarra 1977: 176-177)</p>
---	--

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>2.5. adibidea</p> <p>ERNE NAPARROA= DESPIERTA NAVARRA</p> <p>Lo digo a gritos: Despierta, Navarra que para tu desgracia anda el gavilán hambriento...</p> <p>Con frecuencia acecha y se lleva una cría de las alejadas de las alas de su madre. En tí el camino vasco se va achicando</p> <p>Lo digo a gritos: Despierta, Navarra.</p> <p>Pues se coló un ladrón en la casa vasca:</p> <p>El Rocal, La Ribera y la Barranza hablan lengua extranjera. acallando el vascuence.</p> <p>Pamplona, da el grito, levántate de nuevo para devolver al pueblo la savia de Aitor.</p> <p>Si la madre ha de vivir, es preciso que te alces de nuevo.</p> <p>Navarra no es dueño de sí; los eneligos se le han adueñado</p>	<p>ERNE, NAPARROA...!</p> <p>Oiuka erranen dut: Erne, Naparroa...! Zure kaltean gose dabil arranoa... Sarritan murgil jo ta, darama txittoa, amaren egalpetik urrundutakoa. Zugan euskal-sendia bakantzen dijoa Oiuka eranen dut: Erne, Naparroa...!</p> <p>Lapurra sartu bait zen euskaldun-etxera: Erronkari, Barranka eta Erribera arrotzez mintzo dira, ixilduz euskera. Iruña, jo irrintzi, zutitu osterá, erriari, Aitorr'en atsa ematera... Ama biziko ba da, Zutitu osterá...!</p> <p>Naparra ez da bere buruaren jabe;</p>
---	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>a pedradas por todas partes... Los atrevidos no tienen cora zón, sólo tienen la fuerza por ley; los dominados temerosos están en silencio, dejando al pueblo sin respiración. Por culpa nuestra nos estamos ahogando bajo el dominio extran- jero.</p>	<p>nausi ditu etsaiak arrika goi ta be... Ausartak biotzik ez, indarra du lege; okilduak errudun, ixilikan gaude, erria utzirikan arnasarik gabe; geuron erruz itotzen arrotzaren mende.</p>
<p>El vascuence destrozado anda por los montes tomando aires limpios donde puede... No seas cambiable, como el hombre, pájaro del bosque, peña de los montes... Las tempestades de las gentes de las poblaciones les ha hecho subir a los mon- tes... y andan por los montes buscando la salud...</p>	<p>Euskera zapuztua dabil mendi-garaiz, aize garbiak artzen, bearrean nunbait... Ez izan aldakorra, gizona bezin gaitz, oianeko txoria, mendietako aitz... Kaletarren ekaitzak eraso dio maiz..., eta osasun billa dabil mendi-garaiz...</p>
<p>Pamplona que amas las leyes del pueblo, sustento y base de nuestra vieja historia; está enfadado el señor del bosque por este parón... Deja el campo para renovar las viejas-nue-</p>	<p>Erri-legeak maite dituzun Iruña, gure kondaira zarren sustrai eta muña; asarrean basajaun, gaur geldi-biguña...</p>

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>vas amarguras para extender en vasco la ikurriña Navarra... Puesto que lo sabes, la amargura viejo-nueva.</p>	<p>Arresiak utzirik, zar-berritu griña, euskeraz zabaltzeko Napar-ikurriña... Ba dezakezu eta, zar-berritu griña...!</p>
<p>Escucha vasco de Orreaga, el grito de aquellos y el eco de la guerra... Triunfador de la ikurriña, que tiene sangre roja, El vascuence está pidiendo la salud de Navarra.</p>	<p>Entzun Orreagako turut euskalduna, aien irrintzi eta guda-oiartzuna... Ikurrin garaitzalle, odol gorri-duna, Xabier-gaztelutik eup...! egin ziguna, kate-auslea ba zan, mende da ituna... Euskera-eske dago Napar-osasuna.</p>
<p>No olvides lo que dice la piedra de Amayur: "Morir es bueno en caso de no ser navarro"... Resucite el soldado de entonces, pisoteando al hombre sin honor; el Iruña de antes y no la Pamplona de hoy... "Morir es bueno, de no ser navarro".</p>	<p>Ez aztu Amayur`ko arriak diona: "Naparra ez izanen, iltzea duk ona...". Piztu bedi orduko gudari-azkona, ostikatuz ausardi gabeko gizona; lengo Iruña, ta ez oraingo Pamplona... "Naparra ez izanen, iltzea duk ona...!</p>

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>Aralar, cumbre de todos los montes vascos, morada, castillo y tierra de Aitor, en tus bosques el perro está ladrando viendo el vascuence caer y agachado... Danos el grito-saludo para aunarnos... Empuñad la espada de San Miguel...</p> <p>Que viva aquí el vascuence... No seas mortecina... Navarra tiene necesidad de tu camino... O es que vas a ir al cielo por el monte, al lugar que tu Dios te debe?... Ven al seno de tu familia que está cerca... pues aquí te necesitamos; no seas mortecino...</p> <p>(AGA 4832-77 esp., 73/06060)</p>	<p>Aralar, euskal mendi guzien gaillurra, Aitorren bizi-leku, gaztelu ta lurra, ire pagadietan zaunkaz duk txakurra, ikusirik erorka Euskera makurra... Egiguk alkartzeko irrintzi-agurra... Erain Mikel Deunaren ezpata-muturra...!</p> <p>Euskera, bizi emen...! Ez izan il-gura...! Naparrak ba du zure senda-gai ardura... Menditik ote zuaz berriro zerura, zure Jaungoikoak len sor zindun lekura...? Zatoz urri dan zure famili estura... Emen bear zaitugu; ez izan il-gura...!</p> <p><i>Txiruliruka: Olerkiak (Loidi 1977: 109-110)</i></p>
---	---

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>2.6. adibidea</p> <p>!Viva la Patria vasca! !Viva Euzkadi libre! !Viva nuestra personalidad Lograda para siempre!</p> <p>1) Con flores de sangre roja Se ha mojado Fuenterrabía Caído en el suelo Ha muerto Jesús María</p> <p>2) El joven roble vasco Caído en el suelo ¿Quién te ha asesinado Derramando sangre?</p>	<p>EUSKALDUNEN ERANTZUNA ABERRIAK DEITURIK</p> <p>(45. orrialdean)</p> <p><i>Gora Euskal Aberria!</i> <i>Gora Euskadi Askaturik!</i> <i>Gora gure Nortasuna</i> <i>Betiko lorturik!! (bi aldiz)</i></p> <p>(75. orrialdean)</p> <p>1. Odol gorrizko lorez Busti da Hondarrabi, Lurrean erorita Hil da Jexux Mari; Lurrean erorita Hil da Jexux-Mari Odol gorrizko lorez Busti da Hondarrabi.</p> <p>2. Euskal haritz gaztea Lurrean jausita, Nork sarraskitu zaitu Odola isurita? Nork sarraskitu zaitu Odola isurita, Euskal baritz gaztea Lurrean jausita?</p> <p>(76. orrialdean)</p>
--	--

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldirian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>3) Quien manda Hoy en el Pueblo Vasco Queriendo pisotear La personalidad vasca?</p>	<p>3. Nork agindutzen digu Gaur Euskal Herrian, Euskaldun nortasuna Zapaldu nahian? Euskaldun nortasuna Zapaldu nahian, Nork agindutzen digu Gaur Euskal Herrian?</p>
<p>4) El alma del Pueblo vasco Quiere ser libre Pero el opresor Golpea fuerte</p>	<p>4. Euskal Herriko Arimak Libre izan nahi du, Baina zapaltzaileak Gogor jokutzen du; Baina zapaltzaileak Gogor jokutzen du, Euskal Herriko Arimak Libre izan nahi du.</p>
<p>5) Cuántos jóvenes nuestros Dan su sangre !Para que la tierra vasca Sea libre!.</p>	<p>5. Gure hainbeste gazte Odola ematen, Euskaldun Lurraldia Libre izan daiten! Euskaldun Lurraldia Libre izan daiten, Gure hainbeste gazte Odola ematen!</p> <p>(77. orrialdean)</p>
<p>6) ¿Cuánto le costará al Pueblo Vasco El dar la cara A Al opresor?.</p>	<p>6. Zenbat kostako zaigu Euskal Herriari, Aurpegi ematea Zapaltzaileari? Aurpegi ematea Zapaltzaileari, Zenbat kostako zaigu</p>

Testu hau honako honen aurreko bertsio bat da:

Arroita Azkarate, I. & Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan. Gandara, A. (ed.). *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1982)*. 57-114. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua

<p>7) Tu sangre joven Jesús Maria nuestro Que viva siempre En la bandera vasca.</p> <p>NOTA.- -Todos los versos se repiten cambiando las estrofas.</p> <p>(AGA 12041-78 esp., 73/06786)</p>	<p>Euskal Herriari?</p> <p>7. Zure odol gaztea Gure Jexux-Mari, Euskaldunon banderan Beti bizi bedi; Euskaldunon banderan Beti bizi bedi, Zure odol gaztea Gure Jexux-Mari!</p> <p>1976-IX-8 arratsaldeko 8etan hil zuten Hondarribian Jexux-Mari.</p> <p><i>Hirugarren atalak (Bitaño 1978)</i></p>
---	--